


MEMORIA



2

0

1

3



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa

Agencia Vasca de
Protección de Datos



Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3
01008 - VITORIA-GASTEIZ
avpd@avpd.es
www.avpd.es

MEMORIA

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urterokoa

LG: VI 312-2006

Lan hau Creative Commons-da



Aitortu (cc by)

Aske zara:

- Lan hau kopiatu, banatu eta jendurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- Lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- **Aitortu** - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera emanez haien babesak duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.eu>



AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA	5
2.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	7
3.	AHOLKULARITZA EGINKIZUNA.....	9
4.	KONTROL EGINKIZUNA.....	41
5.	EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA	50
6.	DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOAK.....	56
7.	PRIBATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA	58
8.	EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA	64
9.	BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA	68
10.	BARNE KUDEAKETA.....	70
	DATU PERTSONALAK BABESTEKO ERREGISTROAREN ZIFRAK	80
	AHOLKULARITZA ETA IKUSKARITZA UNITATEARI BURUZKO ZIFRAK	92
	AURREKONTU EXEKUZIOARI BURUZKO DATUAK.....	94





1. AURKEZPENA

Azken urteotan datuen babesaren ezaugarri azpimarragarri bat izan da herritarrek eta komunikabideek agertu duten sentsibilizazio handia.

Beharbada, eragin zuzena izan du horretan teknologiaren hedapenak, edo administrazio publikoek ere gero eta zerbitzu gehiago eskaini izanak arlo guztietan bide elektronikoetatik herritarrei. Datuak Babesteko Euskal Bulegoan saiatzen gara herritarrek agertzen duten dinamiken eta interesen jarraipen zehatza egiten.

Guretzat aspalditik da funtsezko eginkizuna herritarrentzat eta euskal administrazioentzat probetxugarri izatea. Lankidetza dinamika indartsuari ekin diogu, herritarrekin ditugun komunikazio kanalak sendotuz eta komunikabideetan dugun presentzia ere handituz, beharrezkoak direlako herritarrengana behar bezala heltzeko. Egia esan, gizartean dugun presentzia nabarmen handitzea lortu dugu jada.

Eta administrazio publikoekiko lankidetza ere hobetu egin dugu, "privacy by desing" izenez ezagutzen den oinarritzko printzipioa ezarriz, hau da, administrazioekin lankidetzan arituz proiektuak hasierako fasean daudenetik. Proiektu horiek datu pertsonalak biltzeko edo tratatzeko era berriak dakartzate, batez ere bitarteko informatikoen bidez; eta, horregatik, eragin berezia dute datu lagatzeei dagokienez, bai administrazio elektronikoaren ezarpenaren ondorioz bai administrazioen artean zuzenean egiten dituzten datu lagatzeen ondorioz. Antzera gertatzen da zehapen prozeduren edo antzekoen ondorioz egiten diren datu pertsonalen trukeetan ere.

Esate baterako, genero indarkeriaren esparruan interes handia sortu du oraintsu, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduak (1720/2007 Errege Dekretua) goi-mailako segurtasun neurriak ezartzeko agintzen duelako halako datuak daudenean. Horregatik, harremanetan gabiltza EUEDEL eta EMAKUNDErekin, halako gaiekin zer ikusirik handiena duten erakundeak direlako, oinarritzko eskubide honen babes ildoak finkatzeko.

Aurten, bi mila eta hamahiruan, administrazio publikoetako datu babesarekin zer ikusia duten 56 kontsulta ebatzi ditugu. Horietako askok agerian uzten dituzten egoerek argi erakusten dute datu pertsonalen babesak eragin zuzena duela herritarren eguneroko bizitzan.

Horren adibide bat da tokiko administrazioaren esparruan egin zen kontsulta bat, atez ateko bilketa puntuetan uzten den informazioaren kudeaketari buruz. Kontsulta egin zuen herritarrak ez zeukan garbi udalerri batzuetan ezartzen ari ziren zabor-bilketako sistemak bateragarriak ziren datu pertsonalak babesteko araudiarekin. Horrez gain, beste kontsulta bat izan genuen galdetzeko ea legezkoa den bideoz grabatzeko sistema bat jartzea jabeen erkidego batean.



Esan beharrean gaude Agentzia urtetik urtera ari dela indartzen erreferentziazko erakunde izaera, datu pertsonalen babesaren esparruan herritarrei aholkularitza emateari dagokionez.

Herritarrek atenditzeko betebeharra funtsezkoa izan da eta izango da guretzat. Aurten kanal anitzeko sistema berria ezarri dugu, herritarrei azkarrago erantzutea ahalbideratzeko; hartara, kontsultak jasotzeko ditugun kanalak eta herritarrekiko komunikazio kanalak ere hobetuz. Eta erakunde honek horrela segitu nahi du, ahalik eta eperik motzenez erantzuten telefonoz edo posta elektronikoz, gure erakundera jotzen duen edonori, gure eskumeneko eta gure jarduera esparruko edozein zalantza argitzeko asmoz.

Hain zuzen ere, 2013an kontsulta kopurua handitu egin da aurreko urteekin alderatuta, eta berrogeita hamasei irizpen eskaera formalei erantzun diegu. Era berean, beste hainbat kontu argitu dizkiegu modu ez formalean ere, telefono bidez edo bertara etorri direlako galdezka, herritarrei eta erakunde publikoei, azken horiei batez ere; eta espero dugu 2014an urte barruan mila kontsulta izatea ebatzita. Administrazioen arteko lankidetzaz hitzarmen iraunkor bat ere ari gara sustatzen, etorkizunean sendotzeko asmoarekin, administrazioei aukera emateko, modu informalean eta bileren bitartez edo telefono bidez, administrazioen eguneroko funtzionamenduan eragina duten kontuei buruzko kontsultak egiteko. Uste dugu horrela asistentzia hobea ematen dela, eta oro har administrazio publikoen funtzionamendua ere hobetu egiten dela.

Era berean, Agentziak hasitako administrazio prozedurei dagokienez, aipagarria da babes prozedurak gora doazela, eta onetsien indizea ere oso altua izan dela. Agentzian 46 salaketa aurkeztu dituzte, eta administrazio publikoen aurkako 14 prozedura ebatzi ditugu, garrantzitsuenak datu pertsonalen lagatzeekin eta zabalkundearekin lotutakoak.

Bestalde, azpimarratu nahi dugu, Datuak Babesteko Erregistroari dagokionez, euskal administrazio publikoen ehuneko ehuna daudela inskribatuta, falta zen Euskal Autonomia Erkidegoko udal bakarrak inskribatu dituelako bere fitxategiak. Ondorioz, esan dezakegu Erregistroak fitxategien inskripzio guztiak dauzkala jasota.

Gure aldetik, uste dugu 2013ko emaitza oso ona izan dela, Agentziaren lan ildoak berretsiz hamargarren urteurrenean, bai eta bertako kideena ere, orain arte bezala, aurrerantzean ere herritarrei eta administrazio publikoei laguntzen jarraitzeko.

Dagoeneko 2014an gaude, Agentziaren hamargarren urteurrenean; eta une aproposa da, urtea amaitu ondoren, atzera begiratu eta txarto egindakoa zuzentzeko eta ondo egindakoa hobetzeko; eta, bidenabar, erakundearen etorkizunari eta datu babesarenari aurre egiteko.

Beraz, ideiak argi ditugu, eta herritar orori zuzentzen gatzazkio, gehiago eta hobeto ezagutu ditzaten euren eskubideak; bai eta administrazio publikoei ere, oinarritzko eskubide hau ezarri eta hobeto babes dezaten.



2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 14., 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitako Kontseilu Aholku-emailea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gobernu organo bat da, eta zuzendariari aholku ematea du xede.

Honako erakunde hauek ordezkaritza dute Kontseilu Aholku-emailean: Eusko Legebiltzarra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoak, euskal toki erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN OSAERA

Hona 2013ko abenduaren 31n Kontseilu Aholku-emaileak zituen kideak, 2/2004 Legearen 16. artikuluaaren arabera:

<i>Nieves Martínez De Antoñana andrea</i>	Lehendakaria. Araubide Juridikoaren zuzendaria. Lehendakaritza Saila
<i>Montserrat Auzmendi del Solar andrea</i>	Legelaria, Eusko Legebiltzarraren ordezkaria.
<i>Maider Ziganda Población andrea</i>	Modernizazio eta Zerbitzuetarako zuzendaria. Lurralde historikoen ordezkaria
<i>Ricardo Ituarte Aspiazua jauna</i>	Santurtziko Udala. Toki erakundearen arduraduna
<i>Eduardo Jacob Taquet jauna</i>	Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra. Informatika Arloa. Euskal Herriko Unibertsitatea
<i>Iñaki Esparza Leibar jauna</i>	Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Oinarrizko Eskubideen Esparrua. Euskal Herriko Unibertsitatea
<i>Iñaki Pariente de Prada jauna</i>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria
<i>Joseba Etxebarria Goikoetxea jauna</i>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusia.

Kontseiluaren lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Ekainera arte Montserrat Auzmendi del Solar andrea, Eusko Legebiltzarreko legelaria izan zen lehendakaria, eta bere ordezkari Nieves Martínez De Antoñana andrea, Lehendakaritzako Araubide Juridikoaren zuzendaria izendatu zuten.



2.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emaileak ohiko bilera bi egin ditu: bata ekainaren 5ean eta bestea azaroaren 19an.

Bileretan gai hauetaz hitz egin zuten:

Ekainaren 5eko bilera:

- Lehendakaritza berritzea.
- Kontseilu Aholku-emaileko hainbat kide berritzea: Eusko Legebiltzarraren eta EAEko administrazio orokorraren ordezkariak.
- 2012ko Memoria
- Egoeraren txostena.
- Aliantza estrategikoak.
- Ekitaldiak. Prestakuntza.
- Sentsibilizazioa: DBEBren jarduerak komunikabideetan izan duen isla.
- Kontuen auditoria 2012.
- 2013ko aurrekontuak.
- Kontseilu Aholku-emailearen asebetetze inkesta.


Azaroaren 19ko bilera:

- Kontseilu Aholku-emailearen kide bat berritzea: lurralde historikoen ordezkaria.
- 2012ko Memoria
- Egoeraren txostena.
- DBEBren hamargarren urteurrena izango denez 2014an, hori ospatzeko ekitaldien plangintza.
- DBEBko hainbat plazaren deialdiari buruzko informazioa.
- "DBEBren Kontseilu Aholku-emailearen antolaketa eta funtzionamendu arauen" 7.2 artikulua aldatzea.
- 2013 eta 2014ko aurrekontuei buruzko informazioa.
- Kontseilu Aholku-emailearen asebetetze inkesta.



3. AHOLKULARITZA EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna betetzeko, administrazio publikoek, erakundeek eta korporazioek edo pertsona fisiko nahiz juridikoek Bulegoaren ezarpen esparruan dauden datu pertsonalen tratamenduei buruz egiten dizkioten galderei erantzun behar die.



Kontsultak idatziz, posta elektronikoz, faxez, telefonoz eta modu presentzialean egiten dira, eta oinarrizko eskubidearekin zer ikusi handia dutenak eta administrazioek eta herritarrek zenbait gairen inguruan Bulegoaren iritzia gainera erantzun formala eskatzen duten alderdiak Bulegoaren irizpen bidez ebazten dira.

Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna dela eta, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorren proiektuen gaineko txostenak ere egin behar ditu nahitaez; bai eta administrazio publikoen iritzia menpe jartzen diren xedapen orokorren proiektuei, hitzarmenei eta bestelako tresna juridikoei buruzkoak ere. Hori guzti hori egiten da datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokitzen direla aztertzeko.

3.1. IRIZPENAK


Egiten dizkiguten kontsultei idatziz erantzuten diegu, hala egin behar dela xedatzen baitu 2/2004 Legearen 17 n) artikulua. Bestalde, kontsultei erantzutea aholkularitza eginkizun bat denez, irizpen deitzen diegu. Datu pertsonalen babesaren inguruko gai jakin baten inguruan galderak egiten dituzten administrazioak eta pertsona pribatu, fisiko edo juridikoak dira irizpenen hartzaile zuzenak.

Hona hemen aholkularitza eginkizunaren ezaugarriak:

- Irizpen-eskaerek datu pertsonalen babesarekin lotutako gaiei buruzkoak izan behar dute, eta, bereziki, 2/2004 legearen 2.1 artikuluko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategiei buruzkoak.
- Planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburua den datu-tratamenduaren gaineko deskribapena egin beharko dela eta Bulegoak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.



2013an DBEBn 54 kontsulta jaso ditugu idatziz, eta guztira 56 ebatzi ditugu. Egin dituzten kontsulta guztien % 15 pertsona fisikoenak dira eta gainontzekoak administrazioenak. Foru eta toki administrazioak izan dira kontsulta gehien egin dituztenak (% 44), eta kontsulta gehien egin duen bigarren administrazioa EAEko administrazio orokorra (% 19).



Egin dizkiguten kontsultak ikusita, argi dago euskal administrazio publikoak gehien kezkatzen dituen gaietako bat dela erakunde webetan eta aldizkari ofizialetan egiten diren argitalpenenetatik eratorritako datu pertsonalen tratamenduak. Esan behar dugu horietako zenbait datu-tratamendu datu-lagatzetzat edo datu-komunikaziotzat jo behar direla, eta era askotako arazoak sortzen direla: argitaratutako informazioak denbora luze irauten duelako argitaratuta, komunikazioek helmen masiboa dutelako eta halako tratamenduek zailtasun handiak dakartzatelako datuak ezerezteko orduan.

Agentziak argi eta garbi adierazi du fitxategien eta tratamenduen arduradunek oso ondo baloratu behar dutela argitaratzeko premia zenbaterainokoa den eta zein den argitalpenaren eremua, hau da, argitalpena modu irekian ala itxian egin behar den; eta ahalegin egin behar dutela, behin helburua lortutakoan, informazioa ez indexatzeko.

3.1.1 Irizpen garrantzitsuenak

Irizpenak herritar guztien eskura daude Agentziaren web orrian (www.avpd.es).

▪ ATEZ ATEKO BILKETA PUNTUETAN UZTEN DEN INFORMAZIOA KUDEATZEA

Irizpenak dio halakoetan ez dela datu pertsonalen tratamendurik egiten, eta gertatzen dena dela udalek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak hondakinak biltzeko eta tratatzeko esleitzen dien eskumena baliatzen dutela. Hala eta guztiz ere, hondakinek herritarren bizitza pribatuko alderdi bat edo beste agerian utz dezaketenez, Agentziak uste du zerbitzu horren kudeaketa arautzen duten udal ordenantzek arrisku hori kontuan hartu beharko dutela.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak toki erakundeei gomendatzen die hondakinak lagatzen dituen identifikatzen duen edo identifikagarri egiten duen hondakinak kudeatzeko sistema bat ezartzeko, eta udal ordenantzetan berariazko tratamendu bat jasotzeko datu pertsonalak dituzten hondakinetarako, legediak aurreikusten dituen neurriak baliatuz horretarako; kontuan hartuta guzti horren xedea dela hondakinen kudeaketak ahalik eta eragin txikiena izatea pertsonen pribatutasunean.

(CN12-025 IRIZPENA)



▪ **BIDE-AZPIEGITURETAKO KANONA KUDEATZEKO ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA**

Ondoko datu tratamendua aztertu dugu: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udaletako biztanleen udal erroldetako datuak lagatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari, BIDEGI S.A. foru sozietateak bide azpiegiturak erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanonaren deskontua kudeatu ahal izateko.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua gaitzen duela Aldundia kanonaren deskontuaren eskatzaileen erroldako datuak atzitzeko, lege-manu horrek zer ikusia duelako administrazioak herritarrekin komunikatzeko duen premiarekin; ez du zer ikusirik, ordea, herritarrek dokumenturik ez aurkezteko duten eskubidearekin.

Gipuzkoako udalerriek bide azpiegituren kanonaren deskontuaren eskatzaileen egoitza-datuak laga behar badizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiari, nahitaez eskuratu beharko dute lehenengo laguntzaren eskatzaileen adostasuna. Eta datu komunikazioa egin ahal izateko, tresnaren bat ezarri beharko da lagatzaileek jakin dezaten adostasuna egon badagoela, eta segurtasun eta osotasun berme gorenak finkatu beharko dira DBLOren printzipioak erabat betetzeko.

(CN12-028 IRIZPENA)

▪ **ESKOLA-ABSENTISMOA ETA DESESKOLATZEA DESAGERRARAZTEKO PROTOKOLO BAT EGITEKO ERROLDA DATUAK LAGATZEA**

Hezkuntza administrazioari erroldako datuak lagatzea legezkoa da, derrigorrezko eskolaratzea kontrolatzeko helburua duelako. Datu lagatzearen hartzailea Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza da, Ordezkaritzak bere eskumenetako bat gauzatu ahal izateko: derrigorrezko eskolaratzea (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 71.4 artikulua).

Baina, Hezkuntza administrazioari adin txikikoen egoera pertsonalari edo familia egoerari buruz udal fitxategietan dauden datuak lagatzeko, adin txikikoen gurasoen edo legezko ordezkarien adostasuna eskatu beharko da.

(CN12-029 IRIZPENA)

▪ **PROIEKTATUTAKO HITZARMENAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN HITZARMENA IZENPETZEN DUTEN UDALEN ARTEKO INFORMAZIO LAGAPENEI BURUZKO LANKIDETZA ARTIKULATZEN DU**

Agentziak uste du martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak ez diola Gipuzkoako Foru Aldundiari uzten toki administrazioaren fitxategietan dauden datu guztiak hartzen (datu horiek berez udal eskumenekoak diren eskumenak burutzeko jaso direlako), eta, beraz, aldundiak bakar-bakarrik eskuratu ahal izango dituela arauetan aurreikusita dauden datuak eta, zerga-ondorioa duten beste batzuk ere bai, baldin eta errekerimendu zehatzen bidez eskatzen badira.

(CN12-034, CN13-27, CN13-037 eta CN13-039 IRIZPENAK)



▪ **JABEEN ERKIDEGO BATEKO INFORMAZIOA AGENZIAKO FITXATEGIEN ERREGISTROAN INSKRIBATZEARI BURUZ, ETA, BERA AGERTZEN DEN BIDEO BAT DELA-ETA, ZEIN ESKUBIDE DITUEN**

Jabeen erkidegoak antolatzeko eta kudeatzeko nahitaez egon behar da, gutxienez, erkidegoa osatzen duten jabeen datu pertsonalak jasotzen dituen fitxategi bat, eta jabeen erkidegoen betebeharretako bat da, datu pertsonalak babesteari dagokionez behintzat, fitxategia Datuak Babesteko Espainiako Agentzian inskribatzea. Erkidegoko lehendakariak (jabeen erkidegoaren ordezkaria denez) egin dezake inskripzioa, baina administrariak edo idazkariak ere egin dezake, hala egiteko esaten bazaio.

Aztertzen ari garen kasuan, jabeen erkidegoaren administrazioaren ardura finka-administratzaile bati eskuordetu zitzaion; eta, beraz, finka-administratzailea da tratamendu-eragilea, eta jabeen erkidegoa da fitxategiaren edo tratamenduaren arduraduna (DBLOren 3. artikulua). Baina, DBLOren 12. artikulua xedatzen duenarekin bat, hirugarrenen konturako tratamenduak direla esan ahal izateko, fitxategiaren arduradunaren (jabeen erkidegoa) eta tratamendu-eragilearen (administratzailea) arteko kontratu bat edo idazki bat edo kontratu baten edukia eta kontratua izenpetu izana egiaztatzen duen frogaren bat egon beharko da. Kontratuak honakoa jaso beharko du berariaz: arduradunak tratamendu-eragileak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko dituela datuak, datu horiek ez dituela aplikatu edo erabiliko kontratu horretan jaso gabeko xedeekin eta datu horiek ez dizkiela komunikatuko beste pertsona batzuei, ezta datuok gordetzeko ere. Kontratuan finkatuko dira, berebat, lege honen 9. artikulua aipatzen dituen segurtasun-neurriak. Tratamenduaren arduradunak nahitaez ezarri beharko ditu halakoak.

Prestakuntza ikastaro batean egindako filmazioei dagokienez, adierazi behar dugu datu pertsonalak babesteko araudiak xedatutakoa bete behar dela. Esan behar da datuak babesteko oinarritzko eskubideak norbere datuak kontrolatzeko ahala eta datu horiek erabiltzeko eta datuei buruzko erabakiak hartzeko gaitasuna aitortzen diela herritarrei, eta datu pertsonalak bildu zireneko helburuak betetzeko behar den adina denbora baino ez direla gordeko bermatzen die; beraz, bildu zireneko helbururako garrantzitsuak edo beharrezkoak ez diren unean ezereztu egin beharko dira (DBLOren 4.5 artikulua). Datuak ez badira ezereztu, interesdunak ezerezteko eska dezake (DBLOren 16. eta 17. artikulua).

(CN12-036 IRIZPENA)

▪ **EUSKARARA ITZULTZEKO IVAP-ERA BIDALTZEN DITUZTEN TESTUETAKO DATU PERTSONALAK EZABATU BEHARRA**

Itzultzeko testuek datu pertsonalak izan ditzaketela kontuan hartuta, eta jakinda datu pertsonal horiek itzulpen eskaera egiten duenaren titulartasunpeko fitxategi batean jasota egongo direla, testuak itzultzeko zerbitzua kontratatzen bada IVAPekin, itzulpen eskatzailea fitxategiaren arduraduna izango da eta IVAP tratamendu-eragilea.

Tratamendu-eragilearen figura baliokoa izateko, nahitaez bete behar da DBLOren 12. artikuluan ezarritako erregimena, eta kontratatu den zerbitzua emateko baino ez du



balioko; eta ez da nahikoa izango esatea datu babesari buruzko araudia modu orokorrean bete behar dela edo artikulua horretan jasotako lege erregimena modu formalean onartzea.

Hirugarrenen kontura datuak tratatzeko kontratua behar dela eskatzea eta kontratuak DBLOren 12. artikuluan xedatutako edukia bete behar duela eskatzea garrantzi handiko kontua da, horrek bermatzen duelako horrela egindako datu komunikazioek ez dutela zer ikusirik DBLOren 11. artikulua aurreikusitako lagapenekin; eta, beraz, 12. artikuluan xedatutako erregimena bete beharko da, era horrek esan nahi du, lehen ere esan dugunez, interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko dela alde aurretik.

Ondorioz, DBLOren 12. artikuluan finkatutako erregimena bete ezean, eta IVAPekin kontratua izenpetu ezean, IVAP ezingo da tratamendu-eragilezat jo, eta datu pertsonalak dituzten testuak bidaltzea IVAPera itzultzeko, datuak lagatzea beste izango litzateke; eta horretarako, interesdunaren adostasuna beharko da alde aurretik; edo, 11.2 artikuluko salbuespenetako bat gertatu beharko da. Betekizun horiek betetzeko ardura datu lagatzaileak du.

Kontuan izanda aztertu dugun kasuan, eta IVAP autonomia erakundeak bidalitako informazioaren arabera, ukituek ez dutela adostasunik adierazi, itzultzeko testuak bidaltzea legezkoa izateko datu pertsonalak babesteko araudiari dagokionez, bidali aurretik disoziazio prozedura bete beharko da.

Bestalde, IVAPen *"Itzulpen eta interpretaritzako espedienteen kudeaketa eta jarraipena"* fitxategiko *"Itzulpenak-datu identifikatiboak"* deritzon atala (fitxategiaren oinarritzko egiturako atal bat da) ezabatu egin daiteke, ez daukalako edukirik, hain zuzen ere, IVAP tratamendu-eragilea bada, ezin duelako datu pertsonalik jaso bertako fitxategietan jaso, eta suntsitu edo tratamenduaren ardunari bueltatu behar dizkiolako, kontratu-prestazioa bukatu ostean. Gainera, atal horrek ez du zentzurik, egun erabiltzen den irizpidea ondo erabiltzen bada, hau da, enkargatutako itzulpen-enkarguek datu pertsonalik ez badute.

(CN12-037 IRIZPENA)

▪ **ETXEBIZITZA BATEN GAINKO AURRI-DEKLARAZIOA DELA-ETA UDALAK EGINDAKO TXOSTEN TEKNIKO DEKLARAZIOAK UKITUTAKO BATI LAGATZEA ETA UDALAREN AKTAK UDAL IRAGARKI-OHOLEAN JENDAURREAN JARTZEA**

Kontsultak zer ikusia handiagoa du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen duen artxiboetarako eta erregistroetarako sarbide eskubidearekin, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin baino.

30/1990 Legeak aitortzen duen eskubidea zaintzea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, ikusi bestela zer esan zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2009ko uztailaren 8ko epaian:

Datuak lagatzeko edo komunikatzeko arau orokorra adostasuna bada ere, salbuespen batzuk ere onartzen dira, adibidez, 11.2 a) artikulua xedatzen duena: *"Lege batek baimentzen badu lagapena"*.



Kasu honetan datuak lagatzea gaitzen edo baimentzen duen legea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea da. Hobeto esanda, 30/1992 Legearen 35.a) eta 37. artikulua; eta planteatu diren bi kasuetan interes legitimorik dagoen ala ez erabakitzeko eskumena udalak du.

Udalbatzetako aktak udal iragarki-oholean argitaratzeko kontuari buruz, Agentziak hainbatetan adierazi du bere iritzia (denen partez: CN06-015 eta CN08-011), eta esan izan du oro har udalbatzak publikoak badira ere, horrek ez duela esan nahi udalbatzako erabaki eta ebazpen guzti-guztiak publikoak izan behar direnik oso osorik, ikusita gauza bat dela herritarrek berez duten informazio eskubidea baliatzea eta beste bat dela informazioa eskatzea, TAOLen 18.1 artikuluan xedatutakoa ("Eskaera arrazoitua") eta AJAren 229.2 artikuluan aurreikusitako argitalpena kontuan hartuta.

(CN12-038 IRIZPENA)

▪ ***GAIKUNTZA NAZIONALEKO IDAZKARI KONTU-HARTZAILE LANPOSTU BATERAKO HAUTAKETA PROZESU BATEAN, EZGAITU IZAERA ARGITARATZEA***

Administrazioan lanpostuak betetzeko dauden printzipio gidarien oinarrian dagoen interes publikoak legitimatu egiten du datu pertsonalak babesteko eskubidea murriztea, hautaketa prozesuen publizitate eskubidea dagoenean tartean. Baina, osasun datuari dagokionez, intimitaterako eskubideari egiten zaion kaltea, Konstituzioaren arabera, legezkoa izan dadin, proportzionala ere izan beharko da nahitaez; eta proportzionala izateko baldintza hau bete behar du beste batzuen artean: intimitate eskubiderako hain kaltegarria ez den eta helburu bera lortzeko baliagarria den beste neurririk ez egotea.

Azken finean, interes orokorra (hautaketa prozesuen publizitatea eta gardentasuna) eta interes partikularra ponderatu behar dira, eta lortu nahi den helburuak nahikoa garrantzi konstituzional izan beharko du datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea murrizteko.

Agentziak uste du, datu babesaren esparru materialetik begiratuta, hautaketa prozesu honetan erabilitako izen-abizenen datua argitaratzeko sistema egokia dela; baina, gomendatzen du ahal den neurrian ondo erkatu behar direla datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea eta funtzio publikoan sartzeko publizitaterako eta gardentasunerako eskubidea.

Zehatzago esanda, ezintasunak dituzten pertsonentzat gordetako kupoa eta "ezinduen" osasun datua argitaratzea dela-eta, Agentziak gomendatzen du ahalik eta gutxien zabaltzea hautagaiaren ezintasunari buruzko datua; eta, uste du horretarako ondo egongo zela ezintasunaren baremazioari buruzko informazioak ez ematea eta sarbide identifikatu bidez eta bakarrik interesdunak sartzeko moduan argitaratzea datuak; eta horrez gain, ezabatzea "ezinduen txanda" dioen esaldia edo aipamena, eta horren orde, gako edo letra bat jartzea prozesuko oinarrietan, txanda identifikatu ahal izateko moduan, baina berariaz aipatu beharrik gabe.



Era berean, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar badira datuak – onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda edo karrerako funtzionarioen izendapenen zerrenda– eta kontuan hartzen badugu aldizkaria jendearen eskurako iturria dela, gomendatzen duguna da ez egitea "ezinduei" buruzko aipamenik.

Horrez gain, DBLOren 4. artikuluan xedatutako helburuaren printzipioarekin bat, datu pertsonalak ezabatu egin beharko dira erregistratu zirenean zegoen helburua betetzeko beharrezkoak eta garrantzitsuak ez diren unean bertan. Horrek esan nahi du iragarki-oholetik kendu egin beharko direla eta blokeatu egin beharko direla web orrian, argitaratu beharraren oinarrian zegoen administrazio prozedura bukatzean.

(CN12-039 IRIZPENA)

▪ **EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN ETA KONTSUMO SAILAREN OSASUNAREN INKESTAN PARTE HARTZEA.**

2010-2012 Aldirako Euskal Estatistika Planaren urriaren 21eko 4/2010 Legeak dio Planean jasotako estatistikak nahitaez erantzun beharrekoak direla, eta "osasunaren inkesta" ere erantzun beharrekoa dela. Gainera, maiatzaren 22ko 78/2012 Dekretuak onartzen duen 2012ko Urteko Estatistika Programaren (EHAA, 2012-5-30) 2. artikulua zera dio: *"Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, 2012ko Urteko Estatistika Egitarauan sartutako estatistikak derrigorrean bete beharrekoak dira, estatistika-eragiketa bakoitzaren fitxan informatzaile gisa ageri direnentsat"*.

30501 kodea duen "Osasunaren inkesta" eragiketa estatistikoari dagokion fitxak dio familiak eta gizabanakoak direla informatzaileak, eta, beraz, inkesta betetzeko hautatutako pertsonak nahitaez betebeharrak dituzte inkestok. Eta hala egin ezean, administrazio zehapena ekar dezakeen administrazio arau-haustea egin dezakete.

(CN13-001 IRIZPENA)

▪ **EMAKUMEAK ATENDITZEN DITUEN ELKARTE BATEK, UDALETXEAREKIN IZENPETUTA DUEN LANKIDETZA HITZARMEN BAT DELA ETA, UDALETXETARI EMAKUMEEN DATU PERTSONALAK LAGATZEA**

DBLOren 12. artikuluan jasotako betekizunak eta bermeak berariaz ezarrita egon ezean, ez dago arazorik tratatutako datuak udalari jakinarazteko, baldin eta ukituen hori egiteko adostasun informatua adierazi badute alde aurretik (DBLOren 11.1 artikulua eta 5. artikulua). Baina, DBLOren 11. artikuluko 2. idatz-zatiak xedatzen du adostasuna noiz ez den beharrezkoa, eta salbuespen batzuk finkatzen ditu, adibidez, a) idatz-zatian xedatzen duen salbuespena: "Lege batek baimentzen badu lagapena".

Udalaren eta elkartearen arteko hitzarmen honen xedea da udalak elkarteari zuzenean ematen dion izendun diru-laguntza baten baldintzak eta konpromisoak finkatzea; hitzarmena Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22 a) eta 28.1 artikulua xedatutakoa betetzeko izenpetu zen. Kasu honetan elkartearen tratamenduaren ardura da, eta DBLOk eta lege organiko hori garatzen duen Erregelamenduak ezartzen dituzten betebeharrak guztiak ditu.



38/2003 Legearen 14.1 c) artikulua dio diru-laguntzen onuradunek honako betebeharra dutela: “Diru-laguntza ematen duen organoak edo, halakorik ezean, entitate laguntzaileak egiaztapen-jarduketak egin diezazkioten onartzea, bai eta kontrol organo eskumendunek, nazionalak nahiz Batasunekoak izan, egin ditzaketen bestelako egiaztapenak, finantza-kontrolak eta kudeaketa-kontrolak ere; eskatzen dioten informazio guztia emanez”. Horiez gain, “Estatuko Administrazioako Kontu Hartzailetza Nagusiari, autonomia erkidegokoari edo toki korporaziokoari edo, Batasuneko araudiaren arabera, finantza kontroleko eskumenak esleituta dituzten organoei nahitaez laguntzea eta eskatzen dieten dokumentazioa ematea, diru-laguntza emaileak diren neurrian, dagozkien kontrol eginkizuna burutzeko” (38/2003 Legearen 46.1 artikulua).

Beraz, egiaztatze jarduerak burutzeko egin behar diren datu tratamenduek badute lege gaikuntza: diru laguntzak arautzen dituen araudia.

Baina, hitzarmenean jasotako obligazioa datu pertsonalak lagatzeko DBLOren bat etortzeko, kalitatearen printzipioa bete behar da nahitaez (BDLOren 4. artikulua). Beraz, komenigarria da atenditutako emakumeen datu pertsonalak lagatzeko, datu horiek udalak erdietsi nahi duen helbururako egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izatea; eta kasu honetan helburua da baloratzea ea diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten, eta, baldintzak betetzen badituzte, diru-laguntzaren bigarren ordainketa egitea (hamaikagarren klausula).

Beste alde batetik, kontuan hartuta elkarteak ematen duen zerbitzua etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten edo zaurgarritasun egoeran dauden emakumeei zuzenduta dagoela, kontsulta honetan aztertzen ari garen datuak eta ebaluazioak “bereziki babestutako” datu sentsibletzat jo beharrekoak dira; eta goi-mailako babesa eman behar zaie, nortasunaren alderdirik intimoenak daudelako tartean (DBLOren 7.3 artikulua eta Erregelamenduaren 81.3 a) eta c) artikulua). Horregatik guztiagatik, datuak lagatzeko erregimena ere berezia da: “Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori”.

Halakoetan titularren berariazko adostasuna ezinbestekoa da eta horrelako datuak tratatzeko arau orokorrak dio adostasuna beharko dela; eta lege batek baimenduta tratatu badaitezke ere, interes orokor bat egon beharko da beti oinarrian.

(CN13-002 IRIZPENA)

▪ **SINDIKATU AFILIAZIOARI BURUZKO DATUAK LAGATZEA FORU ALDUNDI BATI**

Kasu honetan ezargarria den foru arauaren 92. eta 93. artikuluetan jasota dauden lege aurreikuspenak orokorregiak dira eta ez dute nahikoa indarrik sindikatu afiliazioari buruzko datuak besterik gabe lagatzeko; halakoetan interesdunaren adostasuna beharko da nahitaez, eta adostasuna berariazkoa era idatzizkoa izan beharko da (DBLOren 7.2 artikulua). Datu lagatzei dagokienez, DBLOk arautzen duen erregimen murriztaileena da hau, eta 7.3 artikulua aipatzen dituen bereziki babestutako beste datu batzuei (osasuna, arraza eta bizitza sexuala) buruzkoa baino



murritzaleagoa da gainera; izan ere, beste datu horiek lagatzea zilegi izan baitaiteke, legeren batek berariaz agintzen badu horiek lagatzea.

Sindikatu batek foru aldundi bati sindikatu afiliazioari buruzko datuak lagatzea datuak babesteko araudiaren arabera eta legekoa izango da, baldin eta informazio, kalitate, adostasun eta segurtasunerako printzipioak betetzen badira; eta ezinezkoa izango da honelako datuak biltzeko berariazko fitxategirik sortzea.

(CN13-003 IRIZPENA)

▪ **GARABIAK JASOTAKO IBILGAILUEI BURUZKO INFORMAZIOA ARGITARATZEA UDAL WEB-ORRIAN**

Udalak udal web-orrian egin nahi duen argitalpena esparru honetako berariazko araudian aurreikusitako tratamendua baino harantzago doa; eta, beraz, ez du lege babesik; izan ere, araudiak Trafiko-zehapenei buruzko Ediktuen Taulan (TESTRA) argitaratu behar dela xedatzen baitu.

(CN13-004 IRIZPENA)

▪ **FORU ALUNDI BATEK OINARRIZKO FITXATEGI BAT SORTZEA**

Aldundiak eskura dezake Euskal Estatistika Institututik berak sortu nahi duenaren antzeko fitxategi bat, baina 2/2004 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian berariaz jasotako helburua erdiesteko bada bakarrik, hau da, lurraldean bizi diren interesdunei komunikatzea, bere eskumenetatik eratorritako harreman juridiko administratiboei buruzko zerak. Baina, ezin izango du fitxategirik sortu.

(CN13-006 IRIZPENA)

▪ **LURZATIEN TITULARRAK IZAN EZ, ETA LURZATIEN GAINEKO KATASTRO EGIAZTAGIRIAK ESKATZEN DITUZTEN PERTSONEI ESKATUTAKOA EMATEA UDALAK**

Bizkaiko Foru Aldundiak katastroko informazioa mantentzeko, eratzeko eta horren zabalkundea egiteko eskumen eksklusiboa du. Gaur egun herritarrek, administrazio publikoek eta gainontzeko erakunde laguntzaileek, adibidez, notarioek lehen Katastroaren bulegoetan egiten zituzten kontsultak eta egiaztagiri eskaerak, eta beste gestio batzuk egin ditzakete Bizkaiko Katastroaren Bulego Birtualaren bidez.

Foru aldundiak katastroko informazioa atzitzeko gaikuntza eman ahal die udalei euren eskumenak burutzeko erabil dezaten, adibidez, tokiko zergen kudeaketa egiteko, hirigintzaren kudeaketa egiteko edo aldundiaren eskumenen eskuordetzaren edo kudeaketa-gomendio baten esparruan erabiltzeko.

Katastroko datuak atzitzeko ahalmena duen udalak informazioa eta katastroko egiaztagiriak eman ahal izango dizkie herritarrei foru aldundiak hori egiteko baimena eman badio, baina baimenak dituen baldintzen arabera eman beharko ditu (adibidez, erregistroko titularrei bakarrik, erregistroko titularrei eta herritar orori; baina azken



kasu horretan babestu gabeko datuak eman ditzake bakarrik edo inskripzio ezaren egiaztagiri negatiboak ...). Edozelan ere, informazio hori eskuratzeko dauden mugak eta foru aldundiari zuzenean eskatuz gero daudenak berak dira, eta irizpen honetan azalduta daude.

(CN13-007 IRIZPENA)

▪ ***ZUZENEAN ZERBITZUKO BULEGOEK TELEFONOZ EMATEA TRAFIKO ZEHAPENEI BURURZKO EDIKTU TAULAKO DATUAK***

Eskatzailea identifikatu beharra dagoenez, ezinezkoa da informazio administratibo partikularra telefonoz ematea. Hori dela eta, esan daiteke telefono bidezko arreta-zerbitzuak ematen duen informazioa informazio administratibo orokorra dela, eta telefono-kanala ez dela inondik inora artxibo eta erregistroetarako sarbidea. DBLOren 10. artikulua xedatutako "sekretu gorde beharra" bete behar delako gertatzen da hori, besteak beste.

(CN13-008 IRIZPENA)

▪ ***EUSTAT-EN GAITASUNA 1996KO «BIZTANLEEN UDAL-ERROLDAREN» BERRIZTAPENAREN ETA ONDORENGO ERROLDA-KUDEAKETAREN ESTATISTIKA-USTIAPENERAKO ETA 1996KO «BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN ESTATISTIKA» EGITEKO ARAU TEKNIKOAK EZARTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 65/1996 DEKRETUAREN ARABERA, UDALEI IZEN-ABIZENAK ETA NAN BEZALAKO DATUAK ESKATZEKO***

Dekretuaren 2. artikulua dio udalek batera eman eta jaso behar dituztela "Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika" eta Erroldako Inskripzio Orria; eta langile berberak arduratuko direla emateaz eta jasotzeaz, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikak erroldako galderez gain, beste batzuk ere jasotzen dituelako, Euskal Autonomia Erkidegoko ezaugarri soziodemografikoen gaineko informazioa zabaldu eta osatzen dutenak. Horrez gain, dekretuak xedatzen du udalek nahitaez helarazi behar diotela EUSTATi urteko abenduaren 31ko udal erroldaren fitxategia, eguneratuta, fitxategi hori urte horretako erroldaren kudeaketaren emaitza delako (14. artikulua); eta 1996ko biztanleen errolda-berritzea egin ondoko hurrengo urteetan urte bakoitzeko erroldako mugimendu guztiak ere bai (15. artikulua).

Esandako guztiarekin bat, eta apirilaren 2ko 65/1996 Dekretuak esaten duena kontuan hartuta, izena, abizena eta NANA eskatzea bat dator estatistika arloko berariazko araudiarekin, lege izaera duen eta erregelamendu bidez garatutako arau batean aurreikusitako operazio estatistiko ofizialak egiteko eskatu direlako.

Baina, kontuan hartuta helburu estatistikoa duen datu-bilketak eta datu-tratamenduak proportzionaltasunaren printzipioa bete behar dituztela, eta udalek edo informatzaileek ez badute garbi bildutako datua proportzionala eta egokia den ala ez bete nahi den programa estatistikoaren helburuarekiko, proiektu teknikoetako izaera publikoko alderdiak kontsultatu ahal izango dituzte Estatistika Eragiketen



Galdeketen Erregistroan, edo gaiari buruzko azalpena eskatu ahal izango diote EUSTATI.

(CN13-010 IRIZPENA)

▪ **30 URTE BAINO GEHIAGOKO ANTZINAKOTASUNA DUTEN ERAIKINEN KONTSERBAZIO EGOERARI BURUZKO HIRIGINTZAKO TXOSTEN TEKNIKOA ARGITARATZEA ETA EA DBLO-REN ARABERAKOA DEN**

Euskal Autonomia Erkidegoan Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa arautzen duen azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuak ez du arautzen kontsulta-idazkiak aipatzen duen ikuskapena; eta Agentzian ez badakigu ere zein diren udalaren ekimen horren oinarrian dauden arrazoiak, datu pertsonalak babesteko lege erregimena kontuan hartuta, esan behar dugu txosten horietan pertsona identifikatuen edo identifikagarrien datu pertsonalak argitaratzea datu pertsonalen tratamendua dela; eta, beraz, bete egin beharko dela Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean DBLO) datu tratamenduetarako ezarritako lege erregimena.

Aztertzen ari garen kasuan, "eraikinen egoerari buruzko udalaren txosten tekniko" udalaren ekimenez hasitako administrazio espedientean egongo dela pentsatzen dugu, eta espedientean jabeen datuak, edo, halakorik ezean, jabeago erkidearen lehendakariarenak edo ordezkariarenak eta txostena izenpetzen duen udal teknikariarenak egongo dira ustez. Beraz, informazio hori iragarki-oholean argitaratuz gero, informazioa edonoren eskura jartzen da, jabea izan ala ez.

Bestalde, gure azterketan garrantzi handia duen kontu bat da txostena iragarki-oholean argitaratu eta gero, ukitutako eraikinen jabeek jakinarazteko asmoa dagoela; beraz, iragarki-oholean argitaratzearen helburua ez da txostena jakinaraztea (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikulua).

Kontsultak ez du esaten zein den ekimen honen arrazoa, baina informazioa zabaldu nahi bada herritarrek jakiteko zein diren kalterik handiena duten eraikinak eta zein diren jabeek konpondu behar dituzten akatsak, orduan, kalitatearen printzipioa kontuan hartuta, esan behar dugu izena eta abizenak argitaratzea datu pertsonalen gehiegizko tratamendua dela, jadanik badagoelako datu bat helbururako balio duena: txostenaren ondorioa.

(CN13-011 IRIZPENA)

▪ **UDAL TALDE POLITIKO BAKOITZARI EMATEN ZAIZKION DOKUMENTUEK HARTZAILE BAKOITZAREN UR-MARKA IZAN BEHAR DUTEN ALA EZ**

TAOLen 77. artikulua xedatzen duenez, badago lege gaikuntza datu pertsonalak dituzten dokumentuak ukituen adostasunik gabe jakinarazteko. Baina, hala ere, DBLOren 4.2 artikuluan xedatutakoa hartu beharko da kontuan nahitaez: "Tratamenduko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako."



Ur-marka dokumentuetan dauden datu pertsonalei buruzko informazioaren trazabilitate-mekanismo bat da, eta dokumentu horiek gordetzeko ardura duten edo izan duten pertsonak identifikatzeko balio du; eta, beraz, udalaren barne kudeaketari dagokion kontu bat da dokumentuetan ur-marka jartzeko erabakia hartzea, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko segurtasun neurri osagarri moduan edo jardunbide egoki moduan.

Agentziak ez du hori bezalako jardunbide egokien gaineko edo neurrien gaineko iritzirik teknikoak emateko ahalik; izan ere, hori eginez gero, udalak (fitxategien arduraduna) erabakia hartzeko duen ahalera eta erabakiaren oinarrian dauden arrazoiak esku hartuko lukeelako. Hala ere, Agentziak adierazi nahi du udalaren proposamenak bete egiten dituela kontrol agintaritzen doktrinak onartutako irizpideak, eta proposamena jardura proportzionala dela helburuarekiko, eta azaldutako irizpideekin ere bat datorrela; azken finean helburua delako datu babesaren kalitatea hobea izatea udalean.

(CN13-012 IRIZPENA)

▪ ***ALABAK BERE AMAREN HISTORIA KLINIKO OSOA ATZITZEA. AMA EZ DAGO LEGEZ EZGAITUA ETA ALABAK EZ DU AMAREN ORDEZKARIA ETA EZ DU AHALORDERIK***

Ez da nahikoa pazientearen senidea izatea, pazienteak bizirik badago, adinez nagusia bada eta ez badago ezgaituta. Eta, beraz, behar bezala egiaztatutako ordezkaria beharko da, historia klinikoko informazio eskubidearen titular bakarra pazienteak delako.

Historian jasotako mediku eta erizaintza informazioa historia klinikokoaren zati dira, eta, beraz, pazienteak horiek atzitzeko eskubidea du. Ezin izango da eskubidea erabili baldin eta historialean pazientearen interes terapeutikorako jasota dauden datuek hirugarren pertsonen konfidentzialtasunerako eskubideak kalte egingarriak badute, eta baldin eta profesionalak historialean parte hartzeko duten eskubidearen kalterako bada, eta profesionalak erreserba eskubidea erabili badute.

(CN13-013 IRIZPENA)

▪ ***ERA GUZTIETAKO ORDAINKETA AGINDUEN ONURADUNAK DIREN PERTSONEN IZEN, ABIZEN ETA NAN ZENBAKIAK DITUZTEN UDALAREN OSOKO BILKURETAKO AKTAK ZINEGOTZIEI EMATEA ETA DATU PERTSONALAK DITUZTEN AKTAK ADMINISTRAZIO BATZARREI EMATEA***

Osoko bilkuretako aktak udal jardueraren berri emateko banatzen dira bakarrik; eta korporazioko kideren batek informazio zabalagoa behar badu, bilkura hasi aurretik eskuratu dezake, nahi izanez gero, osoko bilkuran aztertutako diren gaiei buruzko informazio osoa idazkaritzan egoten delako; eta geroago ere eskura dezake, informaziorako eskubidea baliatuta. Horregatik, ez dugu ikusten hasieran ematen den zerrendan datu pertsonalak ere jasotzeko premiarik.

Edozelan ere, esan behar dugu udalak baloratu behar duela ea eskatu dituzten datuek zer ikusirik duten egungo gobernua kontrolatzeko jarduerarekin. Hala ere, gogorarazi



behar dugu datu pertsonalak emateko lege gaikuntza egon dagoen arren, ezin izango dela erabili hasierako datu bilketaren oinarrian zegoen helbururako ez den beste baterako (DBLOren 4.2 artikulua), eta bakar-bakarrik komunikatuko direla Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 77. artikulua zinegotziei esleitutako helburu zehatzarekiko egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak diren datuak (DBLOren 4.1 artikulua).

Udalak uste badu ez dela egiaztatu TAOLek zinegotziei esleitzen dien gobernua kontrolatzeko legezko gaikuntza, espedienteak atzitzeko ohiko eskabideekin jokatzeko den bezala jokatu da informazio eskaerari.

Administrazio batzarrei aktaren laburpena bidaltzeko kontuari buruz, esan behar dugu, laburpenetan datu pertsonalak badaude, hori datu lagatzea dela, aurreko kasuan bezala.

Aktaren laburpena denez, pentsatu nahi dugu horren helburua dela erabakiak eta ebazpenak argitaratzea, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea asebetetzeko. Eskubide hori Konstituzioaren 23. artikuluan jasota dago.

Gai hau sakon aztertu izan dugu lehenago ere, adibidez, CN06-015 eta CN08-011 ebazpenetan. Horietan esandakoa ekarriko dugu hona.

(CN13-015 IRIZPENA)

▪ ***EHIZA-BARRUTIAK IRAUNGITA EGONIK, HORIEK BERRITZEKO BAIMENA ESKATZEKO, ETA HORRETARAKO JABEEKIN HARREMANETAN JARTZEKO, UDALAK UDALERRIKO ADMINISTRAZIO BATZARREI FINKEN JABEEN ZERRENDA LAGATZEA***

Agentziaren ustez, kasu honetan ez da gertatzen DBLOren 21. artikulua dioena, administrazio bi horiek ez dituztelako ez eskumen berak, ez gai berari buruzkoak ere. Beraz, datuak lagatzeko lege gaikuntzarik dagoen ala ez aztertuko dugu, eta gure azterketa egiteko kontuan izan behar dugu udalerriko administrazio batzarrak sustatutako ehiza barrutia dela eta barrutia eratzen duten lur sailak elkarren ondoan dauden lursailen jabeenak edo titularrenak direla, eta borondatez elkartu direla ehiza barrutia eratzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak eta Arabako Lurralde Historikoaren ehizari buruzko ekainaren 14ko 8/2004 Foru Arauak xedatutakoaren arabera, esan dezakegu ez dagoela lege gaikuntzarik udal kontsulta-egilea gaitzen duenik katastroko babestutako datuak (finken titularren izen-abizenak) administrazio batzarrei lagatzeko.

Baina finken edo ehiza-aprobetxamenduen titularrek datuak lagatzeko baimena eman ezik, aukera egongo da ehiza barrutia berritzeko ekimena jendaurrean jartzen denean, epe bat jartzeko, finkak barrutian sartzerik nahi ez dutenek idatziz adieraz dezaten ez dutela nahi edo uko egiten diotela barrutian egoteari; eta horrela bete daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluko baimena emateko bete beharra.

(CN13-016 IRIZPENA)



▪ **ADMINISTRAZIO BATZARRAK KONTZEJUAREN AKTAK BERTAKO WEB GUNEAN ARGITARATZEA, AKORDIOEN ZIURTAGIRIAK EGITEA ETA AKTEN KOPIAK HERRITARREI EMATEA**

Kontzejuen akta laburtuak kontzejuaren web orrian argitaratzea datu babesaren araudiarekin bat etorriko da, irizpen honetan jasotako baldintzen arabera egiten bada.

Kontzejuko auzotarrei korporazioaren erabakien gaineko ziurtagiriak ematea, halakorik eskatzen badute, datu babesaren araudiarekin bat etorriko da, irizpen honetan jasotako baldintzen arabera egiten bada.

Aktaren kopia auzotarrei ematea, auzotarrak kontzejuko auzo batzarreko eskubide osoko kideak badira, baldin eta ziurtagiria eskatzen badute, eta AJAren 109. artikuluan ezarritako edukia badute, bat dator datu babesaren gaineko araudiarekin.

(CN13-017 IRIZPENA)

▪ **ZINEGOTZI BATEK UDAL PROGRAMA INFORMATIKOA ATZITZEKO EGINDAKO ESKABIDEA**

Zinegotziek informazioa atzitzea legezkoa bada ere, kalitatearen printzipioak dio datu pertsonalak erabiltzean proportzionaltasunaren printzipioa aplikatu behar dela, eta proportzionaltasunak ez du uzten atzipen masiboak egiten, udalari egin dioten eskabideak nahiko lukeen bezala.

Bestalde, kontsulta idazkiaren arabera, goi-mailako datu pertsonalak dituzten aplikazioetan ere sartzeko baimena nahi da, eta datu horiek jakiteko, tokiko legediak aitortzen duen gaikuntza ez da nahikoa.

(CN13-018 IRIZPENA)

▪ **IRAKASKUNTZA ZENTRO BATEKO HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN HARREMANETAN DBLO EZARTZEA**

Guraso elkarteek nortasun juridiko propioa dute eta ez du zer ikusirik ikastetxearenarekin, eta ez dagoenez legerik baimentzen duenik halako elkarteei ikasleen datuak ematea, datu horiek lagatzeko nahitaezkoa izango da ikasleen alde aurreko baimen informatua, edo ikasleen tutoreena edo legezko ordezkariena.

Adin txikikoen datuak tratatzeko adostasuna DBLO garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 errege Dekretuaren 13. artikuluan dago araututa.

Ikasleen kalifikazio akademikoak iragarki-oholetan edo antzekoetan jartzea ikasleen datu identifikatiboen ondoan, datuak lagatzeko beste da. Beraz, unibertsitate mailakoak ez diren ikastetxeetan halako datuak argitaratzea baimentzen duen legerik ez dagoenez, kasu honetan ere, nahitaezkoa izango da ikasleen alde aurreko baimen informatua, edo, ezin badute, ikasleen tutoreena edo legezko ordezkariena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoan Eskola Osasuna arautzen duen ekainaren 30eko 7/1982 Legeak aukera



ematen dute ikastetxeko langileek (irakasleek nahiz orientatzaileek) ikasleen osasun datuak biltzeko ikasleengandik edo ikasleen tutore edo legezko ordezkariengandik, datu bilketaren helburua hezkuntza-eginkizuna delako (adibidez: ariketa fisikoa egitea galarazten duten ezgaitasunei buruzko datuak edo ikasleek behar dituzten curriculum-egokitzapenak edo curriculum berriak egiteko datu psikologikoak) edo helburua ikaslearen osasuna (fisikoa, burukoa eta soziala) mantentzea eta sustatzea delako. Baina, bi arauak diote datu bilketen helburuak aipatu ditugun bi horiek baino ezin direla izan, eta, beraz, ez dute uzten datu bilketa masiborik egiten.

Kontsultaren xede esparrura begiratzuz gero, horrek esan nahi du irakasle guztiek ezin dituztela ikasle guztien datuak atzitu; beste era batera esanda: ezin da onartu irakasle bakoitzak berak dituen ikasle guztien datu guztiak atzitzea. Hain zuzen ere, murriztu egin beharko da irakasle eginkizunak burutzeko beharrezkoak ez diren datuak atzitzeko aukera, hau da, ezin izango dira tratatu hezkuntza helburua edo eskola osasunaren helburua ez duten datuak, ukituaren edo haren tutorearen edo legezko ordezkariaren berariazko baimenik gabe.

Beraz, irakasleek halako informazioa atzitzen badute, nahitaez bete beharko dute sekretu gorde beharra, DBLOren 10. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Gainera, ikastetxeak egiten dituen datu pertsonalen tratamenduek DBLOren 9. artikulua eta DBLO garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak (datuen segurtasuna) xedatutakoa bete beharko dute.

Azkenean, jantoki zerbitzurako datuak biltzeari buruz, esan behar dugu, kontuan hartuta, batetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2000ko martxoaren 22ko Aginduak (Aginduaren bidez, dei egiten zaie ikastetxeei derrigorrezko irakasmaitetarako eta Haur Hezkuntzarako (2. zikloa) kudeaketa zuzeneko jangela-zerbitzu osagarria eska dezaten, baldin eta ikastetxeko eskola-jantokia ez badago kudeaketa zuzeneko erregimenaren pean) dioena, eta, bestetik, 2012/2013 ikasturtetik aurrera, Zuzeneko kudeaketa bidezko eskola-jantokien funtzionamendurako jarraibideei buruzko Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearen zirkularrak "Dieta bereziei" buruzko X. Eranskinean xedatzen duena, jantokiaren erabiltzaileek edo haien tutore edo legezko ordezkariak eman egin beharko dituzte zerbitzuan eragina izan dezaketen datuak (alergiak, intolerantziak, diabetikoa izatea, zeliakoa ...) eta datua tratatzeko baimena ere eman beharko dute, nahi badute menua euren premietara egokitzea eta elikadura-osasuna ez kaltetzea.

Ikasleen irudiak eta argazkiak hartzeko eta Interneten argitaratzeko edo beste pertsona bati bidaltzeko posta elektroniko bidez, ukituaren adostasuna beharko da, edo haren tutoreen edo legezko ordezkariena.

Edozelan ere, babes berezia behar duen kolektiboa denez (adingabeak), eta kontuan izanda haurrei eta gurasoei horren berri eman behar zaiela jakin dezaten, nahi izanez gero, irudiak jasotzearen aurka agertu ahal direla, badago beste kontu bat argi utzi behar dena: ondo baloratu behar da ea irudia edo argazkia argitaratzea merezi duen lortu nahi den helburua erdiesteko. Izan ere, argitalpenekin adingabeak testuinguru jakin batekin identifikatzen baitira eta hori arriskutsua izan baitaiteke.



Azkenean web orrian argitaratzen eta hedatzen badira, jende guztiak ez ikusteko moduan jartzeko aholkatzen dugu; hau da, sarbide murriztuko mekanismoak erabiltzea, adibidez, erabiltzailearen izen eta pasahitz bidezko sarbidea jarrita.

(CN13-020 IRIZPENA)

▪ **ADMINISTRAZIO OROKORRAREN TITULARTASUNeko FITXATEGI BATEKO DATUAK ZERGA IKUSKARITZARI LAGATZEA**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 91. artikulua administrazio publikoetako organoei agintzen die zerga administrazioari jakinarazi behar dizkiotela xedapen orokorren bidez edo banako errekerimenduen bidez eskatzen dituen zerga-ordainketarako datu, txosten eta aurrekari guztiak.

Kasu honetan badago datuak lagatzeko lege babes, eta ez da behar ukituen adostasunik zerga ikuskaritzari datuak lagatzeko, baldin eta informazioak garrantzia badu zerga gaietarako eta behar bezala arrazoitutako errekerimendu batean oinarrituta badago.

Hala ere, ezin da alde batera utzi DBLOren 4. artikulua finkatu zuen datuen kalitatearen printzipioa. Printzipio horrek ez du uzten fitxategi publikoetan dagoen informazioa modu indiskriminatuan ematen zerga administrazioari.

Pertsona fisikoak izan daitezke bakarrik Konstituzioaren 18.4 artikulutik eratorrirako datu pertsonalak babesteko eskubidearen titularrak. Beraz, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ematen duen babesak ez du balio pertsona juridikoentzat. Banan banako enpresariei buruzko datuak, horiei egiten zaien erreferentzia merkatari, industria arloko enpresari edo itsas merkatari izateagatik bada, datu pertsonalen babes erregimenetik kanpo daude.

(CN13-021 IRIZPENA)

▪ **ESKOLA ABSENTISMOA KOTROLATZEKO APLIKAZIO INFORMATIKO BATEN SEGURTASUN NEURRIAK**

Bilboko Udalak Agentziari egindako irizpen-eskaeran adierazitako datu-egitura duen fitxategia deklaratzeko asmoa agertu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, baina ez du argi fitxategiari segurtasun maila ertaina ala goi-mailako segurtasuna esleitu behar dion.

Fitxategian jaso nahi diren datuak aztertu eta gero, ikusi dugu datuak lau menutan antolatuta daudela: datu pertsonalak, familia-unitatearen datuak, datu gehigarriak eta gizarte eta hezkuntza arloko informazioa.

Eremu horietan babes berezia behar duten datuak jasotzea gerta daiteke, adibidez: arrazari buruzko datuak, osasun datuak edo bai eta polizia helbururako bildutako datuak edo genero indarkeriari buruzkoak ere. Ondorioz, argi dago fitxategiari goi-mailako segurtasun maila esleitu behar zaiola, eta, beraz, udalak abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 101. artikuluan eta hurrengoetan goi-mailako



segurtasun maila duten fitxategi automatizatueterako segurtasun neurriak hartu beharko dituela.

(CN13-022 IRIZPENA)

▪ **NAGUSIENTZAKO EGOITZAK ORDAINTZEN DITUZTELA ZIURTATZEKO DATU PERTSONALAK LAGATZEA**

Inoren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa arautzen duen abenduaren 16ko 11/2005 Foru Arauak eta Egoitzen foru zerbitzu publikoan egonaldi iraunkorragatiko prezio publikoa aplikatzeari eta horretarako arauak ezartzeari buruzko otsailaren 24ko 30/2009 Foru Dekretuak ez dute lege gaikuntzarik ematen datuak lagatzeko adostasunik gabe.

DBLOren 4. artikuluan jasotako datuen kalitatearen printzipioa aintzat hartuta, ezinezkoa da egoitzan sartzeko espediente oso-osorik ematea foru aldundiko ogasun eta finantza saileko organo eskumendunari, iruzurraren aurkako borroka ez duelako gaitzen espediente horretan dauden datu pertsonal guztiak modu masiboan eta indiskriminatuan komunikatzeko.

Zerga arloko ustezko arau-haustearen berri eman ahal izango zaio organo eskumendunari, baina salaketak bakar-bakarrik jaso ahal izango ditu ustez iruzurra egiten ari denari buruzko derrigorrezko datuak.

Azkenik, foru aldundiak berak aztertu beharko du, gizarte zerbitzuen esparrukoa den arau-haustea zein administraziotan salatu nahi duen, eta administrazio horrek zein eskumen esparru dituen kontuan hartuta, DBLOren 21. artikuluan xedatutako ezarri behar duen. Horrek esan nahi du datu lagatzea zilegi izango dela administrazio biak eskumen esparru berean badihardute, eta salaketak beharrezko datuak, garrantzitsuak eta neurrikoak baino ez baditu, salaketaren helbururako; eta salaketa argitzeko eskumena duen organoaren aurrean aurkezten bada salaketa.

(CN13-023 IRIZPENA)

▪ **FRANKISMOAREN GARAIKO ERROLDA DATUAK LAGATZEA UPV/EHU-KO IKERLARIEI**

"Hiru errolda atzitu nahi dituzte: baten bat 1949, 1960 eta 1970 urteen ingurukoa". Errolda horietan agertzen diren pertsona batzuk bizirik egon daitezkeenez oraindik, UPV/EHUko ikertzaileei horiei buruzko informazioa eman ahal izateko, pertsona horien baimena beharko da.

Bestalde, kontsulta idazkian azaltzen dute ikertzaileek ez dutela informazio pertsonalizaturik behar, eta egin nahi duten tratamendu estatistikoa agregatua dela, eta datuak digitalizatu egingo direla, lana bukatutakoan, Udalean aurkezteko.

Horri buruz esan behar dugu Udalak alde zuzenetik datu identifikatiboak kenduta ematen badu dokumentazioa, orduan ez dela datu babesaren alderditik eragozpenik egongo.

(CN13-024 IRIZPENA)



▪ **UDAL LANGILE BATEKIN HARREMANETAN JARRI AHAL IZATEKO BERE DATU PERTSONALAK LAGATZEA**

Kasu honetan ez da izapide baten gaineko erantzukizuna duen udaletxe bateko agintari edo langile bat identifikatzeko eskatzen, eta kontsulta-egilea ere ez da halako izapide bateko interesduna (Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 31. eta 32. artikulua).

Beraz, eskaera honek ez du DBLOren 11.2a) artikuluan aipatzen den salbuespenaren babesa.

Eta eskabideak Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.3 artikulua babestean egin balitz ere, berdin gertatuko zen; artikulua horrek onartzen duelako herritar guztiek dutela artxiboak eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea, Konstituzioaren 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzen duen legediak dioenaren arabera, nahiz eta salbuespenak egon, adibidez, pertsonen intimitatea kaltetzea; baina kasu honetan ez dute eskatu izapidea bukatuta duen administrazio espediente bat atzitzea, eskatu dutena da udaleko pertsonaleko erregistroa atzitzea.

Beraz, udalari eskatutako datu pertsonalak lagatzeko, ukituaren adostasuna beharko nahitaez.

(CN13-025 Irizpena)

▪ **KIROL INSTALAZIOEN BARRUKO ALDEAN IRUDIAK GRABATZEA ETA ARGAZKIAK ATERATZEA**

Kiroldegian dauden pertsonen irudiak grabatzen badira eta pertsonak identifikatzeko moduan edo identifikagarri egiteko moduan ikusten badira, datu pertsonalen tratamendutzat jo behar da irudien grabazioa, eta DBLOk xedatutako baldintzak bete beharko dira.

Kiroldegiaren erabiltzaileek intimitaterako eskubidea izateaz gain, datuen pribatutasunerako eskubidea, datuen gaineko erabakiak hartzeko, eta datuak nork dituen eta zertarako dituen jakiteko eskubideak ere badituzte, nahiz eta leku publiko batean egon, hau da, nahiz eta udal kiroldegian egon.

DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 4. artikulua dioenez, ez zaie datu pertsonalak babesteko erregimena ezarri behar pertsona fisikoek egindako edo mantendutako fitxategiei edo tratamenduei, soil-soilik jarduera pertsonalak edo etxeko jarduerak burutzeko badira; eta horrelakoak dira partikularren bizitza pribatuaren edo familia bizitzaren esparruko jardueren gaineko tratamenduak.

Eta ez da ahaztu behar tratamendua esparru pertsonalekoa edo etxekoa den arren, ezin izango dela sekula grabatu beste pertsona batzuen intimitatea arriskuan jartzen duten tokietan, hau da, aldageletan, komunetan edo saunetan.

Horrez gain, gogora ekarri behar dugu irudietan bertan agertzen diren pertsonak identifikatzea erraza bada eta bizitza pribatuaren esparrutik kanpo zabaltzen badira, ukituen edo legezko ordezkarien baimena eskuratu beharko dela. Gainera, ezin da



alde batera utzi irudiak grabatzea oso lotuta dagoela norberaren irudirako eskubidearekin. Maiatzaren 5eko 1/1982 Legeak arautzen ditu eskubidearen oinarritzko alderdiak.

Azkenik, kontsulta idazkian eskatzen digute argibideren bat emateko eta horrelakoetan nola jokatu azaltzeko; beraz, kontuan izanda ez dela datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko eskubidearen esparruko kontu bat, eta Bulegoaren ezarpen eremutik kanpoko delako, baina laguntzeko asmoa dugunez, adierazi behar dugu argazki-makinen eta bideoen erabilera edo irudiak eta soinuak hartzen dituzten bestelako tresnen erabilera, eta kirol lehiaketa, jarduera eta ekitaldietako irudien erabilera arautu beharko dela kirol instalazioaren erabilera-erregelamenduan bertan; izan ere, udal kirol-ekipamenduen erabilera arautzeko ordenantzak onartzeko eskumena udalek baitute. Hala xedatzen du Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 6 d) artikulua.

Bestalde, teknika hobetzeko ikastaroetan, jardueretan, ekitaldietan eta kirol lehiaketetan jasotako irudiak erabili nahi badira, parte hartzaileek edo euren tutoreek edo legezko ordezkariak baimen informatua eman beharko dute. Baimenik eman ezean, esan egin beharko zaio hori ikastaroko begiraleari edo argazkia edo filmazioa egin behar duenari.

(CN13-026 IRIZPENA)

▪ **FORU ALDUNDIAREN ESKU DAUDEN KIROL FEDERAZIO BATEN KONTUAK ATZITZEA**

Pertsona fisikoak izan daitezke bakarrik Konstituzioaren 18.4 artikulutik eratorrirako datu pertsonalak babesteko eskubidearen titularrak. Ondorioz, DBLOren babesak ez ditu pertsona juridikoak estaltzen. Gainera, ez zaie datu babesaren arloko araudia ezarriko banakako enpresariei buruzko datuak haien merkataritza jarduerarekin bakarrik badute zer ikusia, eta datu horien tratamendua enpresa arloan edo esparruan egiten bada.

DBLOn jasotako atzipen eskubidea bestelako lege bereziek ukituei aitortzen dizkieten eskubideekiko independentea da, eta horixe gertatzen da, hain zuzen ere, azaroaren 26ko 30/1992 Legearekin. Gainera, hori hala dela dio berariaz DBLO-EDren 27.3 artikulua.

(CN13-028 IRIZPENA)

▪ **ZINEGOTZIEI DATUAK LAGATZEA**

Toki Araubidearen Oinarrien Legeak badu titulu juridiko bat zinegotziei informazioa eskuratzeko babesa ematen diena; baina, hala ere, esan behar da ez direla gauza bera gai publikoetan parte hartzeko eskubidea eta informazioa eskuratzeko eta kopiak eskuratzeko eskubidea.

Baina zinegotziek informazioa eskuratzeko eskubidea duten arren, ez da erabateko eskubidea eta ez du zer ikusirik kopiak eskuratzeko eskubidearekin, kopiak eskuratzeko eskubidea tokiko araubidean dagoelako araututa, Auzitegi Gorenaren



Jurisprudentziak dioenez (2006ko martxoaren 29ko Epaia, RJ\2006\2286, hirugarren eta laugarren oinarri juridikoak).

(CN13-029 IRIZPENA)

▪ **LURRALDE HISTORIKO BATEKO BATZAR NAGUSIEN OSOKO BILKUREN ETA BATZORDEEN SAIOEN ZABALKUNDEA**

Foru arau bidez dago ezarrita osoko bilkurak publikoak direla, eta horrek esan nahi du ez dela adostasunik behar osoko bilkuretako irudiak grabatzeko, eta halako datuak tratatzeko lege aurreikuspen bat dago gainera.

Edozelan ere, osoko bilkuran parte hartzen dutenei esan egin beharko zaie bilkurako irudiak eta soinua grabatu eta hedatu egingo direla. Nahiz eta irudiak denbora errealean emititu eta ez gorde, tratamenduaren arduradunak bete egin beharko du informatzeko betebeharra.

Azkenik, batzarren bilkurak, hau da, osoko bilkurak eta batzordeak hedatu behar diren ala ez argitzeko, ikusita batzarkideek edo bestelako parte hartzaileek parte hartu dezaketela, uste dugu egokiena dela parte hartzaileei eta batzarkideei ohartaraztea eta esatea ezin dutela hirugarrenen gaineko datu pertsonalik eman hitzaldietan, nahitaezkoa ez bada behintzat.

(CN13-030 IRIZPENA)

▪ **UDAL BATEKO LANGILEEN BATZORDEAK, LANGILEAK ORDEZKATU ETA LANGILEEN INTERESAK DEFENDATU AHAL IZATEKO, UDAL HORRETAKO PLANTILLAREN DATU PERTSONALAK LAGATZEA**

DBLOren 11.1 artikuluekin bat (*Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da*), eta kontuan hartuta lege batek baimentzen duenean, alde aurreko adostasunik ez dela behar izaten [DBLOren 11.2 a)], enplegatu publikoen datuak lagatzeko, (1) egiaztatu egin behar izango da beti interes legitimoren bat eta laneko helburu edo garrantzi handiko kontu bat daudela —Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiaren urriaren 5eko 2679/2010 Epaia— eta (2) lagatzen diren datuak egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izan beharko dute helburu legitimoa lortzeko. Beraz, ponderatu egin beharko dira datuak lagatzeko aukera eta enplegatu publikoen ordezkaritza organoei legeek esleitzen dizkieten eginkizunez baliatzeko aukera, eta proportzionaltasunaren printzipioa bete, hau da, doktrina konstituzionalak printzipio hori gauzatzeko betetzeko agintzen duen egokitasun, premiazkotasun eta proportzionaltasun irizpenak bete.

Gogora ekarri behar dugu CN07-003 Irizpenean esan genuena: "(...) Bulego honek uste du XXX Udalak langile publikoen datu pertsonalak orokorrean lagatzea, askatasun sindikalaren eskubidea garatu ahal izateko, gehiegizkoa, zentzugabekoa, eta ondorioz, datuen babesaren kontrakoa izango litzatekeela, lege babesik ez baitu". Eta



CN11-012 Irizpenean ere esan genuen "begien bistakoa dela langileen ordezkariari ezin zaiela ukatu informazioa (datu pertsonalak barne). Horretarako, baina, eta datuak modu masiboan eta indiskriminatuan jasotzea ezinezkoa dela kontuan hartuta, batetik, datuak zertarako nahi diren arrazoitu beharko da (eta ez da nahikoa izango esatea enpresarioak indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen duela zaintzeko dela), eta, bestetik, arrazoitu egin beharko da ea eskatutako datuak zergatik diren egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak alegatutako helbururako. Eta horrela balizko datu lagatzaileak behar bezala egin ahal izango du balorazioa".

Hala ere, kontsultan aipatzen diren kasu zehatzen gaineko erantzuna ematen saiatuko gara, eta horretarako lehendik argitaratutako irizpenak erabiliko ditugu edo horiek aztertu egungo ikuspegia kontuan hartuta.

CN07-33 Irizpenean aztertu genuen lanpostu zerrendak eta lanpostu bakoitzean dauden pertsonen identifikazio datuak emateko aukera. Irizpenean atera genuen ondorioa honakoa da: *"Lanpostuen zerrendak ordezkari sindikalei ematea lanpostu bakoitza betetzen duten pertsonak zehaztuz, datuen babeserako inguruko araudian ez du lege babesik"*.

CN05-011 Irizpenean aurkeztu genuen langileen ordainsarien gaineko datuak lagatzeko kontua, eta ondorio hau atera genuen: *"lortu nahi dena funtzionarioen izenen zerrenda eta bakoitzak esleituta duen ordainsariaren zenbatekoa bada, esan beharra dago hainbestetan aipatutako EFPLko agindua ez dela, Bulego honen iritziz, LOPDko 11.2 a) artikulua aipatzen duen legezko baimena eta, beraz, administrazioaren aldetik egindako lagapen horrek araudia urratuko lukeela, interesdunen adostasunik gabe egingo balitz. (...) Bulego honen iritziz eta, datu pertsonalen babeserako funtsezko eskubideari kalterik eragin gabe, funtzionarioen ordainsarien zenbatekoak herritarrei jakinarazteko erabil daitezkeen mekanismo desberdinei buruz gorago esan dugunaren arabera, ez da behar funtzionarioaren identitate zehatzari buruzko datua ematea EFPLko 80. artikulua behar bezala betetzeko"*.

Langile batzordeak produktibitate osagarriari buruzko datuak eskuratzeari buruz Datuak Babesteko Espainiako Agentziak honakoa esan zuen 2009ko maiatzaren 27ko Txostenean: *"Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari (EPOE) buruzko Legearen 40. artikulua indargabetu egin zuela ulertu behar dugu aurreko araudiak enplegatu publikoen ordezkari sindikalei esleitzen zien eginkizuna, funtzionario bakoitzak jasotzen duen produktibitate osagarriaren berri izateko eta bakoitzak kobratzen zuenari buruz uste zuten esateko"*. (...) Lan legepeko langileen datuak lagatzeari buruz, zera adierazi zuen: *"subjektu jakin baten gaineko zaintzarako edo kontrolerako bada, eta subjektu horrek enpresa batzordean aurkeztu badu dagokion kexa, bakar-bakarrik halakoetan onartuko da subjektu jakin baten berariazko datuak lagatzea"*.

Hautaketa prozesuetako parte hartzaileen datu pertsonalak lagatzea dela eta, azpimarratu nahi dugu oso garrantzitsua dela datu-eskeak eskaera legez egin dezakeenaren izenean egotea, hau da, langile-batzordearen edo langile-ordezkarien izenean egotea. Izan ere, halakoetan bakarrik, eta baldin eta arrazoitzen badute sindikatu-eginkizunerako behar dituztela datuak, izango delako legearen arabera datu-lagapena.



Aldi baterako langileekin betetako lanpostuak direla eta, esan behar dugu horrela agertu behar direla lanpostuen zerrendan, eta aldi baterako langileen izendapenak eta kargutik kentzeak ALHAOn argitaratzen direla (adibidez, 2012-10-19ko edo 2013-01-09ko ALHAO), hala xedatzen duelako Tokia Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 104.3 artikulua, hori baita halako lanpostuak identifikatzeko modua (*"Enpleguko funtzionarioen izendapenak, beren ordainsarien araubidea eta beren dedikazioa probintziako "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira eta, hala badagokio, korporaziokoa"*).

(CN13-032 IRIZPENA)

▪ **ORIENTAZIO JURIDIKOKO ZERBITZUEK ETA DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOAREN BATZORDEEK ERABILTZEN DITUZTEN FITXATEGIAK**

Argitu nahi da ea orientazio juridikoko zerbitzuek bildutako datuek osatzen duten fitxategia fitxategi independentea eta erabat autonomoa den doako laguntza juridikoaren batzordeek erabiltzen dituztenekiko, edo, kontrara, hau da, fitxategi bereko zatia den.

Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarilaren 10eko 1/1996 Legeak eskubide hau aitortzeko prozedura bide judizialek kanpo utzi zuen eta doako laguntza juridikoaren batzordeen esku utzi zuen. Batzorde horiek administrazio izaerako kide anitzeko organoak dira. Gainera, 1/1996 Legeak ezarri zuen doako justiziaren espedienteak abokatuen elkargoetako orientazio juridikoko zerbitzuetan hasiko zirela, eta horiei dagokiela eskabideen izapidetze arrunta hastea, eskaerak aztertzea eta interesdunei laguntzea doako justiziaren eskabideak idazten.

Doako laguntza juridikoa izapidetzeko dagoen beste funtsezko organoa Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea da, eta berari esleitu zaio eskubidea aitortzeko eskumena.

Laguntza juridikoko zerbitzuek duten eginkizuna da datuak bildu, aztertu eta proposamenak egitea, eta dokumentazio guzti-guztia Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari atxikita dagoen Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari bidaltzea. Orientazio Juridikoko Zerbitzuak zein eginkizun burutzen dituen ikusita, esan behar dugu tratamendu-eragilearen izaera duela.

Ez dago kontratutik izenpetuta, baina, badago, ordea, arau-xedapen batetik eratorritako enkargu bat, hau da, zerbitzua eman behar da lege ordenamenduak berak agintzen duelako (Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarilaren 10eko 1/1996 Legea eta Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 16ko 110/2012 Dekretua). Beste zenbait kontrol agintaritzek ere esan dutenez, aztertzen ari garen kasuaren antzeko beste kasu batzuetan ere lege ordenamenduak (kasu honetan dekretu batek) esleitzen dituen eskumenek tratamendu-eragile bat egotea dakar, DBLOren 12. artikulua xedatzen duen kontratua sinatu beharrik gabe. Hau da, esleitutako eskumenak berak DBLOren 12. artikulua agintzen duen kontratuaren balioa du. Nahiz eta ez egon borondate-akordioa islatzen duen dokumenturik, idatzizko lege batek dio enkargua egon badagoela, eta lege horrek esandakoa loteslea da.

(CN13-033 IRIZPENA)



▪ **ERITASUN KRONIKOEN ETA ERIKORTASUNAREN GAINEKO AZTERKETA BAT EGITEKO, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ERABILTZAILÉEN DATUAK LAGATZEA**

Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna / B+I+O Euskal Fundazioari etxez etxe­ko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileen datu pertsonalak lagatzeko, ukituen adostasun informatua behar da. Tratamendu-eragileak edo oinarritzko gizarte zerbitzuek eskatu dezakete adostasuna, eskabide inprimakien bidez. Batak ala besteak eskatu, argi eta zehatz jakinarazi beharko diote ukituari zertarako erabiliko diren komunikatu nahi dituzten datuak eta zertarako erabiliko dituen datu hartzaileak. Hala egin ezean, adostasuna baliogabea izango da.

Gainera, kontuan hartuta datu lagatzearen helburua ikerketa bat egitea dela, lagapena egin ahal izateko adostasuna eskatu aurretik, baloratu egin beharko da ea ikerketa bera egin daitekeen disoziatutako datuekin, hau da, ukitua identifikatzea ahalbideratzen ez duten datuekin, eta, ondorioz, interesdunen adostasunik behar ez izatea datuak hirugarrenei lagatzeko.

(CN13-034 IRIZPENA)

▪ **UR PARTZUERGOARI ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA**

Udal batek Gipuzkoako Ur Kontsortzioari egindako datu lagatzea. Datuak lagatzeko arrazoa da uraren ordainagirien fakturazioa egiteko behar dituen datuak ematea Gipuzkoako Ur Kontsortzioari.

Estatutuek arautzen dute Kontsortzioa, eta Estatutuen osagarri da tokiko araudi publikoa. Partzuergoak izaera publikoa duela argi dagoenez, eta DBLOren 11.2 a) artikulua dioena ezarritik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16. artikulua da datu lagatzea gaitzen duen araua, baina baldin eta arauak ezarritako gainontzeko betekizunak ere betetzen badira. Beraz, funtsezkoa da aztertzea zein den kasu honetan Kontsortzioak duen eskumena.

Partzuergoa edo kontsortzioa administrazio instrumentala eta espezializatua denez, partzuergoa eratzen duten toki erakunde­en ordez aritzen da udalarena den eskumen bat burutzeko: ur hornidura. Eta ur horniduraren kudeaketa hirugarren baten bidez egiten du: Gipuzkoako Urak sozietatea.

Kontsortzioak uste du zerga erroldako datuak eta biztanleen erroldako datuak ez direla beti bat etortzen. Hori dela eta, Kontsortzioak dio udalak eman ahal duen informazio osagarria –datu pertsonalik eman beharrik gabe– (biztanle kopurua) ez dela erabilgarria ur hornidura fakturatzeko.

Agentziaren ustez, "kudeaketa arazoak" ez datoz fakturazio sistematik, eta arazo horiek eskatzen dute, datuak bat ez datozenean, datuak zuzentzea. Edozelan ere, egokitzeak jotzen bada, udalari eskatu ahal izango zaio laguntzeko argi dagoenean datuak zehatzak ez direla, baina aipatu diren kudeaketa arazoak ezingo dira inoiz erabili Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin kontzortziatuta dauden udaletako udal erroldak modu indiskriminatuan laga ahal izateko gaikuntza-titulua moduan.



Gure ustez, eskatutako datu tratamenduak urratu egiten du DBLOren 4. artikulua ezartzen duen datuen kalitatearen printzipioa. Printzipio horren arabera, udal erroldako datuak komunikatzea gehiegikeria bat da, erroldatuen identitatea jakitea (haurrak ere egon daitezke tartean, ur horniduren kontratuarekin zer ikusirik ez duten pertsonak eta abar), ez da garrantzitsua fakturazioak behar bezala egiteko.

(CN13-035 IRIZPENA)

▪ **INDARKERIA POLITIKOAREN BIKTIMEN GAINKO DATU BILKETA**

Herritar talde batek indarkeria politikoaren biktimei buruzko lan bat egin nahi du eta jakin nahi du zer uste duen Datuak Babesteko Euskal Bulegoak datu bilketari dagokionez.

Indarkeria politikoaren biktimei buruzko informazioaren bilketa datu pertsonalen tratamendua bat da. Hori dela eta, elkarriketatu nahi dituzten pertsonen berariaz, zehatz eta argi azaldu behar zaie aldez aurretik zertarako diren elkarriketak eta zertarako erabiliko dituzten gero han jasotako datuak, hala xedatzen duelako DBLOren 5. artikulua.

Pertsona fisikoak dira Konstituzioaren 18.4 artikulutik eratorrirako datu pertsonalak babesteko eskubidearen titularrak (ikusi DBLOren 2.1 eta 3 a) artikulua). Horregatik ez ditu babesten pertsona juridikoak. Oso ondo azaltzen du hori DBLO garatzen duen EDren 2.2 artikulua.

Datu pertsonalak biltzea eta fitxategi batean jasotzea datu pertsonalen tratamendu bat da, eta, beraz, arau orokorra izango da ukituaren adostasuna eskatzea (DBLOren 6. art.). Adostasunak borondatezkoa, askea, argia, espezifikoa eta informatua izan beharko du. Gainera, ideologia, erlijioa, sinesmenak edo sindikatu afiliazioa agerian usten duten datuak biltzen badira, adostasunak berariazkoa eta idatzizkoa izan behar du (DBLOren 7.2 artikulua).

Datu sentisiblerik gordetzen dituen fitxategiak goi-mailako segurtasun neurriak eduki beharko ditu nahitaez (DBLOren 81.3 a) artikulua).

Artxibo historikoetan sartzeko, ezargarria den Estatuko ondare historikoari buruzko araudia edo autonomikoa bete beharko da. Horren arabera, artxibo historikoetan dauden datuak bizirik dauden pertsonenak badira, DBLOk babestuta egongo dira. Datu sentisiblerik edo bereziki babestutako datuak dituzten dokumentu historikoak atzitzeko, ukituen berariazko eta idatzizko adostasuna beharko da, eta bakar-bakarrik pertsonak hilda badaude erabili ahal izango dira araudian denborari buruz ezarritako irizpideak.

Horrez gain, DBEBk uste du Memoria Historikoari buruzko Legearen helburua ikusita, lege horrek ez duela gaitzen Espainiako Gerra Zibilari eta diktadurari buruzko fondo dokumentaletan dagoen biktimei buruzko informazio bereziki sentisiblerik atzitzea, ukituen adostasunik egon ezean.

Azkenik, gogorarazi behar dugu Internet komunikazio kanal bat dela eta ez dela komunikabide bat, eta Interneten argitaratzen den oro ez dela jendearen eskurako iturritzat jotzen. Interneten jendaurreko informazio iturritzat joko da Internetetik



kanpo ere jendearen eskurako iturria dena, adibidez, aldizkari ofizialak. Ondorioz, ukituen adostasuna beharko da jendearen eskurako iturrietatik ez datozen eta jendaurrean dauden datu pertsonalen tratamenduetarako.

(CN13-036 IRIZPENA)

▪ ***EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAN DATUAK EZEREZTEA***

Agintaritzaren aldizkaria tratamendu-eragile berezia da ("sui generis"), eta arduradun askoren kontura tratatzen ditu datu pertsonalak, eta arduradun horiek legeak agintzen dielako argitaratu behar dituzte datuok.

Beraz, nahiz eta aldizkari ofizialaren arduradunaren aurrean baliatu ezerezteko eskubidea, erabakia arduradunak hartu beharko du, eta erabakia hartutakoan aldizkariari jakinarazi beharko dio, aldizkariak egin beharrekoa egiteko.

Aldizkari ofizialean argitaratu eta gero, eta bere helburua bete ondoren, ezingo da egon argitaratutako informazioa indexatzeko modurik.

(CN13-040 IRIZPENA)

▪ ***OINARRIZKO ESKUBIDEAREKIN BATERAGARRIAK DIREN TOKI ERAKUNDEAREN FUNTZIONAMENDUAREKIN ZER IKUSIA DUTEN BI DATU TRATAMENDU: UDALAK OSOKO BILKUREN AUDIOAK GRABATZEA, PUBLIKOAK OSOKO BILKUREN AUDIOAK ETA BIDEOAK GRABATZEA ETA HORIEN ZABALKUNDEA EGITEA, ETA AKTAK WEB ORRIAN ARGITARATZEA***

Toki korporazio orokorretako osoko bilkurak grabatzeko lege gaikuntza Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 70.1 artikuluan dago, berariaz dioelako toki-korporazioen osoko bilkurak jendaurrekoak direla. Baina, gure ustez, horrek bakarrik balio beharko luke osoko bilkuretako kideentzat, eta ez bertan parte hartzen duten beste pertsona edo gonbidatuentzat. Publikoak osoko bilkura grabatu eta hedatu ahal dituen argitzeko, esan behar dugu jurisprudentziak hori egin daitekeela dioela, Konstituzioaren 20.1 d) artikulua aintzat hartuta. Azkenik, aktak argitaratu behar badira, laburtuta argitaratu beharko dira.

(CN13-041 IRIZPENA)

▪ ***ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN EMANDA DITUZTEN HAINBAT ETXE JABEK, ETXEBIZITZA HORIEK SORTU DITUZTEN GASTUAK DIRELA ETA, PARTZUERGO BATI ESKATUTAKO UR KONTSUMOARI ETA ESTOLDERIARI BURUZKO DATUAK LAGATZEA***

Araudi sektorialeko aurreikuspenek diote jabea dela subjektu pasiboa, eta tasen ordainketa egiteko prozeduretako interesduna ere bada ondorioz. Baina, jabeak ez du zertan izan interesduna beti, hau da, errentamendu kontratuak irauten duen denbora guztian; interesduna izango da maizterrek, okupatzaileek eta abarrek zorra duten



momentutik aurrera, berari eskatuko diotelako ordaintzeko. Beraz, une horretatik aurrera zilegi da datuak lagatzea, adostasunik eskatu gabe.

(CN13-042 IRIZPENA)

▪ ***ALDIZKARI OFIZIAL BATEN EDIZIO DIGITALEAN ARGITARATUTAKO DATUAK EZEREZTEA***

Eskatu dute hautaketa prozesu batean parte hartu zuen pertsona baten izen-abizenak ezerezteko. Datuak 1982an argitaratu ziren.

Hautaketa prozesuetan bete behar diren publizitate eta lehia printzipioak betetzeak esan nahi du parte hartzaileen izen-abizenak argitaratu egin behar direla. Edozelan ere, helburua bete ondoren, baloratu egin beharko da ea jarraitu behar duen aldizkari digitalen edizioetan argitaratuta segitzeko epeak ala ez. Azken kasu honetan, informazioak hor segitzeak urratu egiten du DBLOren 4.1 artikuluko datuen kalitatearen printzipioa.

Aldizkarian argitaratuta egon beharreko epeak gain, argitalpenarekin zer ikusirik ez duen beste alderdi batzuk ere baloratu behar dira, adibidez, bilaketa motoreen bitartez informazioa modu automatikoan berreskuratzeak aukera dagoela. Eta neurriak hartu beharko dira indexazioa egitea ezinezkoa izan dadin.

(CN13-043 IRIZPENA)

▪ ***EA ZILEGI DEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUARI LAGATZEA EDO KOMUNIKATZEA LAGUNTZA PUBLIKO BATZUK (DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA ETA ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA) ESKATU DITUZTEN PERTSONEI BURUZKO ERROLDA DATUAK ETA ESKATZAILEAREN ETXEBIZITZAN BIZI DIREN GAINONTZEKO GUZTIEN ERROLDA DATUAK ERE BAI, NAHIZ ETA AZKEN HORIEK LAGUNTZARIK EZ ESKATU.***

Batetik, laguntza eskatu duenaren datuak eskatzen dituzte, eta, hala badagokio, eskatzailearen elkarbizitza unitateko pertsonenak ere bai. Argi dago eskatutako informazioa, eskatzaileei buruzkoa, legezkoa dela, batez ere, datu komunikazio hori egiteko ukituen adostasuna dagoelako. Abenduaren 23ko 18/2008 Legean dago etxebizitza berean bizi diren gainontzeko pertsonen buruzko informazioa lagatzeko lege gaikuntza.

Kasurik konplexuena da eskatzailearen etxebizitza berean bizi diren pertsonen buruzko informazioa eskatzen denean, baina etxebizitza berean bizi diren horiek laguntzarik eskatu ez dutenean. Halakoetan, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 60.1 artikulua ematen du gaikuntza. Baina, hala ere, datuen kalitatearen printzipioa ezarri beharko da, bermatzeko datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak tratatzen direla.

(CN13-044 IRIZPENA)



▪ **DEDIKAZIO BEREZIAREN OSAGARRIA KOBRATZEN DUTEN LANGILEEN AZKEN BI URTEETAKO FITXAKETA-DATUAK LANGILEEN ORDEZKARIEI LAGATZEA ETA LANGILEEN ORDEZKARIEK DUTEN INFORMAZIO ESKUBIDEAREN ETA LANGILEEK DUTEN DATU BABESERAKO ESKUBIDEAREN ARTEKO MUGA**

Argi dago berariazko osagarria eskatu badute, eskatu dutela osagarria zenbait lanposturi esleitu izana behar bezala kontrolatzeko, jarraipena egiteko eta gainbegiratzeko, eta hori jakinda, adibidez, aldaketak planteatu ahal izateko.

Horrekin lotuta, esan daiteke fitxaketetako datuak egokiak direla, garrantzitsuak eta neurrikoak, legezko helburua lortzeko; datu horiek lagungarriak direlako egiaztatzeke ea betetzen diren araudiak ezartzen dituen lanaldiari buruzko betekizunak lanpostu jakin batek dedikazioaren berariazko osagarria izateko esleituta.

Baina, kontuan hartuta berariazko osagarria lanpostu bati esleitzen zaiola eta ez pertsona bati, ez dirudi beharrezkoa denik datu komunikazioan dena delako lanpostu publikoa betetzen ari den pertsonari buruzko datu identifikatzaileak egon behar direnik; beraz, kontrol eginkizuna egiteko informazioa disoziatuta egon daiteke, hau da, zerrenda orokorrak eman daitezke, berariazko osagarria lanpostu jakin batzuei behar bezala ezarri zaien ala ez jakiteko adinako informazioarekin ordezkari entzat.

Azken bi urteetako datu eskaeraren gainean ere ondorioa bera da, ezinezkoa delako informazioa modu masiboan eta indiskriminatuan eskuratzea, DBLOren 4. artikuluan arautzen duen kalitatearen printzipioa kontuan hartzen badugu, printzipio horrek dioenez, laga beharreko datuek egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak izan behar dutelako alegatutako helburua ondo betetzeko.

Hala ere, langileren batek kexaren bat aurkeztu badie langileen ordezkariari, langileen ordezkariak direla egiaztatuz gero, pertsona horren berariazko datua lagatzea zilegi da.

(CN13-045 IRIZPENA)

▪ **KIROL FEDERAZIO BATEN HAUTESKUNDE PROZESUETAN DATUAK LAGATZEA**

Federazioko kide batek federazioko kideen helbide elektronikoak eskatu zizkien federazioari, bere hauteskunde programa kideei helarazteko.

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2011ko azaroaren 24ko Epaiak xedatutako doktrinak dio 95/46 Zuzentarauaren 7 f) artikulua dioena bete behar dela, hau da, interes legitimo bat dagoenez, datuak lagatzeko baimena ematen du adostasun beharrik gabe, eta muga bakarra da interesdunen askatasunak eta eskubideak errespetatzea.

95/46 Zuzentarauaren 7 f) artikulua aurreikusitakoa hartu du oinarritzat Auzitegi Nazionalak hautagaitza bateko zerrenda-burua zen elkargo bateko kide batek hautesleen datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea zuela ebatzeko, Auzitegiaren ustez datuak atzitzeko interes legitimo bat dagoelako tartean: elkargoko kideei bere proposamenak jakinaraztea eta botoa eskatzea. (2012ko martxoaren 15eko Auzitegi Nazionalaren Epaiak).

(CN13-047 IRIZPENA)



▪ EGOITZETAKO ETA EGUNEKO ZENTROETAKO LANGILEAK OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO PAZIENTEEN HISTORIA KLINIKOETAN SARTZEA

Nazioarteko eta Batasuneko arauak osasun datuei ematen dieten babes berezia DBLOn islatu da; izan ere, berariazko lege erregimena finkatzen baitu 7. artikuluko 3. idatz-zatiak:

”Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori”.

15/1999 Lege Organikoak osasun datuak noiz tratatu daitezkeen zorrotz adierazita dauka zerrenda batean. Hona hemen noiz tratatu daitezkeen osasun datuak:

Interesdunak berariaz adierazten badu hori egiteko adostasuna.

Lege izaera duen arau batek hori egin daitekeela esaten badu.

Tratamendua ezinbestekoa bada prebentziorako edo mediko diagnostikorako, osasun asistentzia emateko edo osasun zerbitzuak kudeatzeko; baina, 15/1999 Lege Organikoaren 7.6 artikulua ezarritako murrizketekin: Gainera, lehen esan bezala, artikulua interpretazioa ere murriztailea izan beharko da.

Tratamendua nahitaezkoa bada ukituaren hil ala biziko larrialdi egoera bati aurre egiteko.

Tratamendua osasun arretaren esparruan eta osasun zentroetara joaten diren pazienteei dagokienez egiten bada, eta ezargarria den lege sektoriala dioena betez egiten bada.

Datuak komunikatzea nahitaezkoa bada larrialdi bati aurre egiteko edo azterketa epidemiologikoak egiteko, arloko araudian xedatutakoaren arabera.

Araudi hori tartean dagoen osasunaren arloko gainontzeko legediarekin osatu beharko da. Hona arloko legedia: 14/1986 Legea, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa; 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzkoa; 44/2003 Legea, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa; 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena; eta bidali diguten kontsulta ikusita, batez ere: 41/2002 Legea, azaroaren 14koa, Pazientearen Autonomia eta Informazio eta Dokumentazio Klinikoko arloko Eskubideak eta Betebeharrak erregulatzen dituen; 38/2012 Dekretua, martxoaren 13koa, Osasun-arloko Paziente eta Profesionalek Dokumentazio Klinikoko arloan dituzten Eskubide eta Obligazioei buruzkoa; eta 1093/2010 Errege Dekretua, irailaren 3koa, Osasun Sistema Nazionaleko txosten klinikoetako gutxieneko datu multzoa onartzen duena.

Ezarri beharreko lege erregimena ikusita, hona ondoriozta daitekeena:

Osasun datuak ukituaren adostasunik gabe eskuratu ahal izateko lege batek baimendu behar du berariaz, eta lege gaikuntzaren oinarrian interes orokorreko arrazoiak egon beharko dira nahitaez.

Ez da DBLO urratzen Osasun Sistema Nazionaleko osasun zentroek edo dagokion autonomia erkidegoko osasun sistemarekin kontzertatuta dauden zentro pribatuek,



kontzertu horren esparruan pazienteari ematen dioten zerbitzuaren ondorioz, historia klinikoa atzitzen dutenean.

Zentro soziosanitarioen kasuan, ordea, ez dago historia klinikoetan sartzeko baimenik ematen duen lege-aurreikuspenik.

Beraz, pazientearen baimena lortu beharko da egoitza bateko edo eguneko zentro bateko pertsonal sanitarioa historia klinikoan sartu ahal izateko.

Ezartzen den sarbide sistemak nahitaez bete beharko ditu pazienteen mediku datuen segurtasun neurriak.

Ezin bada pazientearen adostasunik eskuratu, adostasun ordezkaritza bidez eskatu beharko da.

(CN13-049 IRIZPENA)



3.2. TXOSTENAK

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

- 2/2004 Legea garatzeko xedapen orokorretako egitasmoei buruzko txostenak egitea, 17.1.h) artikulua xedatzen duenaren arabera.
- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko proiektuen gaineko txostenak egitea, 2/2004 Legearen 17. 1.l) artikulua eta DBEBren Estatutua onartzen duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikulua xedatzen dutenaren arabera.
- Bestelako lege-xedapenei eta hitzarmenei buruzko txostenak egitea, ebazteko ea datu pertsonalei buruzko araudiarekin bat datozen.
- DBEBren Lege Aholkularitzaren txostenak egitea.

2013an 4 legezketasun txosten egin dira.

Lege aurreproiektu 1, Dekretuen proiektu 2 eta lankidetza hitzarmena bat informatu dira.

Hona informatu ditugun proiektuen zerrenda:

- IL12-014 DBEBren eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren (KZgunea) arteko lankidetza hitzarmena.
- IL13-001 EAEko gaixotasun arraroen erregistroa sortzeari eta erregistroaren funtzionamenduari buruzko Dekretua.
- IL13-002 2014-2017 Aldirako Euskal Estatistika Planari buruzko Legearen aurreproiektua.
- IL13-003 Euskal Autonomia Erkidegoan arreta goiztiarrean esku hartzeari buruzko Dekretua.

3.3. AHOLKULARITZA BILERAK

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak duen izaera proaktiboa eta zerbitzu publikoa izateko asmoa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazioekin, eta bilera horietan hainbat gairi buruzko aholkularitza eman diegu, esate baterako, obligazio formalak betetzeari buruz eta administrazio horien eskumen esparruan burutu behar dituzten jarduerari buruz ere bai.

2013an Lege Aholkularitzak hainbat erakunderekin aritu da lankidetzan, eta, besteak beste, honako bilerak egin ditu:

- Bilera bat Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen fitxategietan dauden datuak zerga helburuarekin erabiltzeari buruz.
- Bilera bat Zuzeneanekin eta Trafikoarekin, telefono bidez eman daitekeen administrazio informazioari buruz.
- Bilera bat Biktimen Zuzendaritzarekin, biktima politikoen memoriari buruz.



- Bilera bat Osasun Sailarekin, EAEko gaixotasun arraroen erregistroa sortzeari erregistroaren funtzionamenduari buruzko Dekretuaren proiektuari buruz.
- Bilera bat Emakunderekin eta Segurtasun Sailarekin, Ertzaintzat Emakunderi datuak lagatzeari buruz, genero indarkeriaren biktimei laguntzak emateko.
- Bilera bat Osakidetzarekin, historia kliniko elektronikoak nola funtzionatzen duen ikusteko.
- Bilera bat Osakidetzarekin, egoitzetako eta eguneko zentroetako pazienteen historia klinikoen atzipenari buruz.
- Bilera bat Izenperekin, Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa gomendiotik datorren datu tratamenduari buruz.

Azpiratu nahi dugu aholkularitza lan hau ez dugula egiten bakarrik administrazio bakoitzak duen kezka argitzeko, datu babesaren kultura zabaltzeko eta hedatzeko hartuta dugu konpromisoa ere betetzeko baizik.

3.4. POSTA ELEKTRONIKOZ ETA TELEFONOZ ETA MODU TELEMATIKOZ EGINDAKO KONTSULTEI ERANTZUTEA

Agentziak egunero eta etengabe eskaintzen die aholkularitza herritarrei, bertatik bertara egiten dituzten bileren bidez eta mezu elektronikoak edo telefono deiak erantzunez. Badakigu herritarrek asko eskertzen dutela zerbitzu hau eta oso ondo baloratzen dutela. Gainera, kanal ezin hobea da datuak babesteko eskubidea gizartean zabaltzeko, eta 2013. urtean ehunka kontsulta erantzun ditugu.

Kontsultak era askotakoak izan dira, baina bildutako informazioa aztertu ostean, honako gaiak dira garrantzitsuenak:

Hasteko, azpiratzekoa da jasotako kontsulta guztien % 20 datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideei buruzkoak direla.

Agentziarentzat garrantzi handia du horrek aurrera begira, datuak babesteko oinarritzeko eskubideari dagokionez, herritarren kontzientziak handitu egin dela erakusten duelako. Herritarrek AZETA izenez ezagutzen diren lau eskubide horietatik batez ere biren aurrean erakutsi dute interesik handiena: atzipen eskubidea eta ezerezteko eskubidea.

Atzipen eskubidea dela eta, herritarrak nahikoa arduratuta daudela dirudi historia klinikoaren atzipenaz; eta zentzuzkoa dirudi, bertan dauden datuak datu sentzibleak direlako.

Ezerezteko eskubideari buruz esan behar da kontsulta gehienek jendeak iragan digitala ezabatzeko gogoia erakusten dutela. Beste era batera esanda, ahazteko eskubideaz ari gara. Gaurkotasan handiko arazoa da, eta Europar onartu beharreko datu babesari buruzko erregelamenduak konpondu nahi du arazoa.

Kontsultak atenditzeko kanal anitzeko zerbitzu honek erakusten du datu lagatzei buruzko galderak direla gehienak, hau da, interesduna ez den beste bati datuak lagatzeari buruz. Horrelako 130 kontsultei erantzun diegu.



Esparruen arabera azterketa bat egiten badugu, ikusten dugu herritarrak gehien arduratzen dituzten esparruak honakoak direla: bideo zaintza, osasun datuak, biztanleen udal errolda eta artxiboak eta erregistroak atzitzeko eskubidea. Herritarren kezka ulertzekoa da, gai horien gaineko araudia oso konplexua delako, eta hala dela frogatzeko, ez dago ikustea besterik oraindik orain legegileak eta jurisprudentziak esku artean darabilten gaiak izan direla.

Kontsultak egiteko herritarrek gehien erabiltzen duten kanala telefonoa da, atzetik datoz posta elektronikoa eta hitzordu pertsonala.

Azkenik, azpimarratu behar dugu informazioa eskatzen dutenak herritarrak eta administrazioak direla batez ere, eta kontsulta gehien egiten herritarrek egiten dituztela. Guretzat datu oso positiboak dira, jendeak gure erakundean duen konfiantzaren adierazle direlako.




4. KONTROL EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kontrol eginkizuna burutzeko, datuak babesteko araudia bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal administrazio publikoek behar bezala ezartzen dutela ere kontrolatzen du; eta, hala badagokio, administrazio horien arau-hausteak deklaritzen ditu eta administrazio horien kontura tratamendu arduradun eginkizunak burutzen dituzten enpresa pribatuei isunak ezartzen dizkie.

Horretaz gain, herritarrek aurkeztzen dituzten atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak (“AZETA eskubideak” izenez ere ezagunak) babesteko erreklamazioak ebazten ditu.

4.1. ESKUBIDEAK BABESTEKO PROZEDURAK

Eskubideak babesteko prozedura Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusita dago, eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 11. artikuluan dago garatuta. Bertan esaten denez, DBEBri babes eskea egin ahal izateko, lehendabizi AZETA eskubidea erabili behar izan du babes-eskatzaileak dagokion administrazioan, eta administrazio horrek ez bete, osorik edo zati batean, eskaera.



2013an Datuak Babesteko Euskal Bulegoan honakoak jaso ditugu: eskubideak babesteko 21 eskabide, 12 erreklamazio atzipen eskubidea ukatzeagatik, 8 erreklamazio ezerezte eskubidea ukatzeagatik eta bat aurka egiteko eskubidea dela eta.

Guztira 25 erreklamazio ebatzi ditugu. Horietatik % 55 onetsi egin ditugu eta % 27 ezetsi.

Erreklamazio horietako batzuk ez dira DBLOren 15. artikuluan xedatutako atzipen eskubideari buruzkoak, hau da, ez dira DBEBren eskumenekoak, 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikuluetan xedatutako artxiboetan eta erregistroetan sartzeko eskubideari buruzkoak baizik.

Argi ikusten da herritarrentzat interes handiko kontua dela historia klinikoak atzitzeko eskubidea. Era berean ikusten da ez dutela ulertzen Agentzia ez dela artxiboak eta erregistroak atzitzeko eskubidea ukatzen dutenean babesa eskatzeko lekua. Espero dugu gaizki ulertzea argitzen lagunduko duela Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Lege berriak, eta herritarrek hobeto bereizten ikasiko dutela zer den DBLOren 15. artikuluko atzipen eskubidea eta zer den informazio publikoa atzitzeko eskubidea.

Hona 2013an ebatzitako babes eskeak:



- ET12-001: Datuak atzitzeko eskubidea erabiltzea Erandioko Udalaren aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako lege ezarritako epearen barruan gauzatu. Eskubide horrek ez du zer ikusirik 30/1992 Legean ezarritakoarekin (DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 27.3 art.).
- ET12-018: Ezerezteko eskubidea erabiltzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurrean, lanbide-espedienteko txosten bat dela eta. DBLOren 4.5 artikuluko kalitatearen printzipioa. Onetsia, informazioa garrantzitsua ez izateagatik.
- ET12-020: Datuak ezerezteko eskubidea erabiltzea EHAAren aurrean. Espedientea hasi aurretik egiaztatu zen EHAAk behar bezala ezereztuta zeuzkala.
- ET12-023: Hiri lurraren kontribuzioan helbidea zuzentzeko eskubidea erabiltzea Donostiako Udalaren aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako lege ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET12-024: Datuak atzitzeko eskubidea erabiltzea Bilboko Udalaren aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako lege ezarritako epearen barruan gauzatu. Eskubide horrek ez du zer ikusirik 30/1992 Legean ezarritakoarekin (DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 27.3 art.).
- ET12-026: Hilda dagoen amaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea erabiltzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurrean. Ezetsia, eskubidea ohar subjektiboei buruzkoa zelako.
- ET12-027: Gipuzkoako Artxibo Nagusia. Datuak atzitzeko eskubidea erabiltzea Gipuzkoako Artxibo Nagusiaren aurrean. Ezetsia. Atzipen eskubidea 30/1992 Legeko eskubidearekin nahasteagatik.
- ET12-029 (RR13-009): Datuak atzitzeko eskubidea erabiltzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako lege ezarritako epearen barruan gauzatu. Eskubide horrek ez du zer ikusirik 30/1992 Legean ezarritakoarekin (DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 27.3 art.).
- ET12-030: Norberaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea erabiltzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurrean. Espedientea izapidetzen ari zen bitartean eman zioten. Onespen formala, baina ez onespen materiala.
- ET13-001: Aurka egiteko eskubidea erabiltzea Arabako Trafiko Ordezkaritzaren aurrean. Eskatzaileak eskatu zuen ez indexatzeko aldizkari ofizialean argitaratutako bere datu pertsonalak. Berandu ebatzi da. Onespen formala, baina ez onespen materiala.
- ET13-002: Norberaren historia klinikoa zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea erabiltzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurrean. Ezetsia, igaro gabe egoteagatik historia klinikoa gordeta edukitzeko gutxieneko 5 urteko epea.
- ET13-003: Neba/anaiaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea erabiltzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurrean. Ezetsia, adostasunik eta lege ordezkaritzarik ez izateagatik.



- ET13-004: Adin txikiko alabaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea erabiltzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako lege ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET13-005: Norberaren datuak dituzten fitxategi guztiak atzitzeko eskubidea erabiltzea Sopelako Udalaren aurrean. Onetsia.
- ET13-006: Norberaren datuak dituzten fitxategi guztiak atzitzeko eskubidea erabiltzea Sopelako Udalaren aurrean. Onetsia.
- ET13-009: Ezerezteko eskubidea erabiltzea Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren aurrean, datuak argitaratzeagatik aldizkari ofizialean. Eskatzaileak bertan behera utzi du eskabidea. Bertan behera uztea onetsi da.
- ET13-010: Hilda dagoen amaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea erabiltzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurrean. Osakidetza ez zion historia klinikoa eman, amak beste pertsona bat izendatu zuelako jaraunsle. Onetsia.
- ET13-011: Datuak atzitzeko eskubidea erabiltzea Vitoria-Gasteizko Udalaren aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako lege ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET 13-012: Hilda dagoen alabaren historia klinikoko dokumentuak atzitzeko eskubidea. Ez dago dokumentaziorik. Epea igarota eta dokumentuak garbituta. Ezetsia.
- ET13-013: Aldizkari ofizialetan dauden datuak ezerezteko eskubidea erabiltzea. Erreklamazio egileak bertan behera utzi zuen eskabidea.
- ET13-014: Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako lege ezarritako epearen barruan gauzatu. Eskubide horrek ez du zer ikusirik 30/1992 Legean ezarritakoarekin (DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 27.3 art.).
- ET 13-015: Adin txikiko alabari buruzko gizarte laguntzailearen bi txosten atzitzeko eskabidea Donostiako udalaren aurrean. Erreklamazio ezetsia, atzipen eskubidea 30/1992 Legeko eskubidearekin nahasteagatik.

4.2. SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal administrazio edo erakunde publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako arau-hausteak dira.

2013an DBEBn 46 salaketa jaso ditugu, eta guztira 50 ebatzi ditugu.

4.2.1. Artxibatutako salaketa aipagarrienak

- DN12-007 (RR13-011): Erandioko Udalak behar ez bezala erabiltzeagatik datu pertsonalak. Datu horiek DBLOren ezarpen eremutik kanpo zeuden, abokatu



baten lanbideko bulegoaren helbideari buruzkoak zirelako (DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 2.2 artikulua).

- DN12-017: Santurtziko Udalak behar ez bezala erabiltzeagatik zaintza kameretako grabazioak. Grabazioak erabili ziren salatzaileari kontu hartzeko ez zuelako soinean teniseko pistan ibiltzeko ekipo egokia. Ustezko errugabetasuna, salatutako gertakariak ez zituelako frogatu.
- DN12-025: Arrasateko Udalak udal araudia urratzeagatik hasitako zehapen espediente bateko datuak lagatzeagatik hirugarren bati. Lokal baten jabeari errentariaren datuak jakinarazteagatik. Egiaztatu zen interes legitimoa zegoela. 20/1992 Legearen gaikuntza duen datu atzipen bat da.
- DN12-030: Alderdi politiko batek bere web orrian hauteskunde mahaiak osatzeko hautatutako pertsonen datu identifikatzaileak argitaratu izana salatu zuten. Sestaoko Udala ere salatu zuten alderdi politiko horri lagatzeagatik bilkura baten akta datu pertsonalak ezabatu gabe. Salaketa artxibatu egin genuen, akta lagatzea zilegi delako araudiaren arabera (TAOL eta AJA). Alderdi politikoaren aurkako salaketa, ordea, ez genuen onartu eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidali genuen, agentzia horrek zuelako eskumena.
- DN12-032: Ullibarri Ganboako Administrazio Batzarra salatu zuten administrazio batzarreko kideei emateagatik Uraren Euskal Agentziaren eta Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren hainbat txosten, txostenek datu pertsonalak zituztelako. Datuak "kontzeju irekiko" bilera batean jakinarazi zituzten, eta tokiko araubideak dioenez, bileraren eskumeneko gaia zen; beraz, bazegoen datuak lagatzeko gaikuntza, ukituen adostasunik ez izan arren.
- DN12-033: Enplegu Eskaintza Publiko batean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak salatzailearen lankideei datuak emateagatik, baina lankideek ez zeuden prozesuan. Ustezko errugabetasuna, salatutako gertakariak ez zituelako frogatu.
- DN12-038: Salatzaileak UPV-EHU salatu zuen bere datu pertsonalak zituen dokumentuak posta elektronikoz modu masiboan bidaltzeagatik. Egiaztatu genuen UPV-EHUK ez zuela datu tratamendurik egin espediente horretan.
- DN12-043: Salatzaileak salatu zuen bere datu pertsonalak behar ez bezala erabili zituztela atzeraeraginarekin, beste administrazio baten komunikazio bat erabili zelako administrazio dokumentuak (zerga erroldak) aldatzeko eta dokumentuetan datu pertsonalak sartzeko. Salaketa artxibatu egin zen, badagoelako lege gaikuntza Trafiko Zuzendaritzak Lazkaoko Udalari jakinarazteko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga likidatu dioten ibilgailu baten zirkulazio baimenean dagoen helbidea. Datu jakinarazpen horrek ondorioak ditu trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kudeaketan, eta kudeaketaren ardura udalak du. Eta ezin da alde batera utzi erregistroak, aipatu dugun artikuluaaren arabera, administrazioen arteko lankidetzari laguntzea du helburu.



- DN12-045: Salatzaileak kargu bat eskuratu zuen 2007-2011n legealdian, eta salatu zuen ALHAOn argitaratu zituztela bere jardueren, ondasunen eta interesen aitorpena. Artxibatu egin zen, legezkoa zelako datu babesari dagokionez, datuak argitaratzea kargua uztean. Gainera aitorpena egitea betebeharrak bat da, lege gaikuntza du eta ezinbestekoa da jarduera publikoan aritzean gardentasuna ziurtatzeko eta interes orokorra gailentzen dela ziurtatzeko.
- DN12-046: Salatzaileak kargu bat eskuratu zuen 2007-2011n legealdian, eta salatu zuen ALHAOn argitaratu zituztela bere jardueren, ondasunen eta interesen aitorpena. Artxibatu egin zen, legezkoa zelako datu babesari dagokionez, datuak argitaratzea kargua uztean. Gainera aitorpena egitea betebeharrak bat da, lege gaikuntza du eta ezinbestekoa da jarduera publikoan aritzean gardentasuna ziurtatzeko eta interes orokorra gailentzen dela ziurtatzeko.
- DN12-049: Salatu zuten Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak behar ez bezala erabili zituela posta elektronikoko hainbat helbide. Egiaztatu genuen ez zutela datuen kalitatearen printzipioa urratu, helbide elektronikoak helburu jakin baterako erabili zirelako, eta horretarako eman zituztelako hain zuzen ere.
- DN12-051: Boto elektronikoaren bidez errektorea hautatzeko prozesua gauzatzeko baliabideak jarri zituen enpresa pribatuari datuak ustez modu ez legalean laga izan salatu zuten. Salaketak zioen datu lagatzea ez zela legezkoa, zerbitzuaren esleipen hartzaileak ez zuelako datu lagatzerako konfidentzialtasun agiririk sinatuta, eta interesdunei ere ez zitzaielako adostasunik eskatu. Salaketa artxibatu egin genuen, UPV-EHUK egiaztatu egin zuelako betetzen zituela DBLOren 12. artikuluko betekizunak, eta UPV-EHUK eta enpresa esleipen hartzailearen artean sinatutako agiriaren kopia aurkeztu zuen.
- DN13-003: UPV-EHUKo iragarki oholean ikasgai baten azterketako notak argitaratu zituzten, ikaslearen izen-abizenekin batera. Salaketa artxibatu egin zen, lege gaikuntza zuelako.
- DN13-004 (RR13-007): Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Saileko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak etengabeko prestakuntza, eta, zehatzago esanda, prestakuntza ekintzaren txostenean egiten den datu bilketa salatu zuten. Agentziaren aurrean salatu zuten datu tratamendua, baina langilearen eta administrazio publikoaren arteko harreman administratiboaren esparruko dela esan behar da. Harreman administratibo hori betetzeko, hau da, administrazioak langileei prestakuntza eskaintzeko duen betebeharra betetzeko, hainbat datu bildu behar izan ziren; eta, horretarako, langileek derrigorrean idatzi behar izan zituzten izen-abizenak prestakuntza ekintzaren txostenean, horrela jakingo zuelako administrazioak ea lanpostu jakin batzuei eskainitako prestakuntza eraginkorra ote zen. Beraz, salaketa artxibatu egin dugu.

RR13-007: DN13-004 salaketa artxibatu izanaren aurka aurkeztu zuten errekurtoa ebatzi zen. Alegazioa nagusiaren arabera, eskatutako datuak



gehiegizkoak ziren. Alegazioari dagokionez, ezin da esan informazioa gehiegizkoa dela; errekurtsio egileak kontrakoa dioten arren, informazioa eskatzea zilegi da salatzailearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren lan harremanaren gaineko araudiaren arabera. Errekurtsioa ezetsi egin dugu.

- DN13-009: ikasleen notak jartzea UPV-EHUko iragarki-oholean. Salaketa artxibatu egin zen, lege gaikuntza zuelako.
- DN13-010: Bilbao Kirolak erakundearen aurka aurkeztutako salaketa ezetsi egin genuen, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren eskumenekoa zelako. AEPDra bidali genuen.
- DN13-011: Bilbao Kirolak erakundearen aurka aurkeztutako salaketa ezetsi egin genuen, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren eskumenekoa zelako. AEPDra bidali genuen.
- DN13-013: UPV-EHUK salatzailearen datu pertsonalak argitaratu zituen iragarki-oholean. Lehendik ebatzita zegoen eta administrazioarekiko auzi-bidean oraindik ebatzeko zegoen salaketa egin zuen berriro salatzaileak.
- DN13-015: Pertsona batek Lanbide salatu zuen, bere lan historia atzitzeagatik adostasunik gabe. Ustezko errugabetasuna deklaratu genuen, ez zutelako egiaztatu benetan atzitu zutenik.
- DN13-016: salatzaileak salatu zuen Donostiako Udalak ireki zion zehapen espediente bateko datuak atzitu zituztela adostasunik gabe eta egunkari batean argitaratu zituztela. Artxibatu egin genuen, bildutako informazioa ez zelako nahikoa arrazoi ustezko errugabetasuna urratzeko.
- DN13-020: Salatzaileak web orri bat salatu zuen bere datuak argitaratzeagatik adostasunik gabe. Fitxategi pribatua. AEPDra bidali genuen.
- DN13-021: Salatzaileak web orri bat salatu zuen bere datuak argitaratzeagatik adostasunik gabe. Fitxategi pribatua. AEPDra bidali genuen.
- DN13-022: Salatzaileak web orri bat salatu zuen bere datuak argitaratzeagatik adostasunik gabe. Fitxategi pribatua. AEPDra bidali genuen.
- DN13-023: Salatzaileak Urretxuko Udala salatu zuen bere egoera pertsonalari buruzko datuak zabaltzeagatik. Ustezko errugabetasuna, salatutako ekintza ez zutelako frogatu.
- DN13-025: Salatzaileak UPV-EHU salatu zuen sindikatu batek berari buruzko informazioa zuten mezuak bidali zituelako posta elektronikoko helbide korporatiboetara. Artxibatu egin genuen, UPV-EHUK ez zuelako gertalariekin zer ikusirik; eta gertatutakoa ez delako Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eskumenekoa.
- DN13-026: Bilboko Udala salatu zuten ibilgailu baten titulartasunari buruzko datu okerrak izateagatik. Artxibatu egin genuen, Udalari ez ziotelako jakinarazi ibilgailuaren titulartasuna aldatu zutenik.
- DN13-032: Salatzaileak salatu zuen bere datuak modu bidegabean laga zituztela, (1) UPV-EHUren sindikatuen iragarki-ohol elektronikoan argitaratu



zituztelako bere adostasunik gabe. Datuak hainbat prozedura judizial eta administratibori buruzkoa ziren; (2) UPV-EHUK hirugarren bati (sindikatu bati) jakinarazi ziolako DBEBren zehapen prozedura bateko salatzailea zela bera, eta prozeduran kautelazko neurria eskatu zuela prozedura horretan. Artxibatu egin genuen, sindikatuen iragarki-ohol elektronikoa baliabide egokitzat dugulako sindikatuak iragarki-oholaren erabiltzaileei jakinarazteko sindikatuak iragarri nahi zuen iragarkia kendu egin behar izan zutela; eta, beraz, arrazoituta dago salatzailearen datuak babesteko eskubideari egindako kaltea; izan ere, kaltea ez baitzen hainbestearainokoa izan, jakinarazi ziren datuei errespetatuz gero eta DBLOren 4. artikuluko irizpideak kontuan hartuz gero (datuak egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izatea).

- DN13-039: Salatzaileak salatu zuen zordunen zerrenda batean sartu zutela. Fitxategi pribatua. AEPDra bidali genuen.

4.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakunde publikoei irekitzen zaizkien prozedurak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutelako zantzurik egonez gero. Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 24. artikulua arautzen ditu, eta artxibatzen direlako bukatzen dira edo, hala badagokio, arau-haustea deklaratzuz.

2013an 11 arau-hauste prozedura berri hasi genituen eta 14 ebatzi genituen. Ebatzitakoen artean bat artxibatu egin genuen, arau-hauste oso larri 1, 11 arau-hauste larri eta arau-hauste arin bat deklaratu genituen.

- PI12-016 (DN12-029): UPV-EHUK salatzailearen osasun datuak argitaratu zituen web orrian. Sekretu gorde beharra urratu zuen. DBLOren 10. artikuluan jasotako arau-haustea; beraz, 22.3 c) artikuluan xedatutako arau-hauste larria dagokio.
- PI12-017 (DN12-014): Segurtasun neurrien falta zaharren egoitza bateko harrera gunean. Arabako Gizarte Ongizaterako Erakundeari segurtasun neurriengatik arau-hauste bat deklaratu genion, edonork irakur zezakeelako harrera gunean zegoen ordenagailuan zegoena. Arau-hauste larria.
- PI12-018 (DN11-040): Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak zerga datuak laga zizkion salatzailearen emazte ohiari.

Sekretu gorde beharra urratu zuen. DBLOren 10. artikuluan jasotako arau-haustea; beraz, 22.3 c) artikuluan xedatutako arau-hauste larria dagokio.

- PI12-019 (DN12-004, DN12-006): Osakidetza Gasteizko Zerbitzu Zentraletan instalatutako bideo zaintzako kamera batek bide publikoko irudiak grabatzen zituela salatu zuten. Ebatzi genuen DBLOren 6. artikulua urratu zutela, ez zutelako datu horiek grabatzeko inoren adostasunik eta inongo lege gaikuntzarik. Arau-hauste larria.
- PI12-020 (DN12-023, DN12-024): Dulantziko Udalak udal biltegi batean instalatutako kamera batek bide publikoko irudiak grabatzen zituela salatu



zuten. Ebatzi genuen DBLOren 6. artikulua urratu zutela, ez zutelako datu horiek grabatzeko inoren adostasunik eta inongo lege gaikuntzarik. Arau-hauste larria.

- PI12-021 (DN12-026): Kirol federazio bateko kideen datuak modu irekian argitaratu zituzten. Ebatzi genuen DBLOren 10. artikulua urratu zutela; arau-hauste arina da, zein datu tratatu zituzten ikusita.
- PI12-022 (DN11-050): Osakidetzako langile batek hainbat datu zabaldu zituen komunikabide batean. Ebatzi genuen DBLOren 4. artikulua urratu zutela, informazio gehiegi tratatu zutelako. Arau-hauste larria.
- PI13-001 (DN12-047): Bilboko Udala salatu zuten salatzailearen diziplina espedientea atzitzen utzi ziolako hirugarren bati. Ebatzi genuen Udalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 10. artikulua urratu zuela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.3 f) artikulua oso larritzat jotzen duen arau-haustea deklaratu genuen.
- PI13-002 (DN12-048): Salatzaileak salatu zuten sinadura batzuei buruzko azterketa bat egin zutela eta kontzeju irekian argitaratu zutela berak ezer jakin gabe. Alde batera utzita nork ordaindu zuen azterketa, erregidore lehendakariak administrazio batzarraren izenean jardun zuen, eta ez du behin ere ukatu esandakoa egin zuenik. Ebatzi genuen Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 4. artikulua urratu zuela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.3 c) artikulua oso larritzat jotzen duen arau-haustea deklaratu genuen.
- PI13-003 (DN12-052): UPV-EHUK (Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia) garai bateko ikasleen datu pertsonalak argitaratu zituen web orrian. Ebatzi genuen DBLOren 11.1 artikulua urratu zutela, datuak adostasunik gabe jakinarazteagatik, eta horrek arau-hauste oso larria dakar, 22.4 b) artikulua xedatutakoaren arabera.
- PI13-004 (DN12-013): Interneteko foro batean Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko fitxategi batzuetako datuak argitaratu zituzten. Ebatzi genuen DBLOren 10. artikulua urratu zutela; eta tartean zeunden datuak ikusi ondoren, arau-hauste larritzat jo genuen.
- PI13-005 (DN13-001, RR13-002, RR13-012, RQ13-003): UPV-EHUren sindikatuen iragarki-ohol elektronikoan argitaratu zen sindikatu biren komunikatu batean salatzaileari zehapen espediente bat ireki ziotela eta zergatik ireki zioten esanez. Ebatzi genuen UPV-EHUK Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 9. artikulua urratu zuela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko



Legebiltzarraren Legearen 22.3 g) artikulua oso larritzat jotzen duen arau-haustea deklaratu genuen.

- PI13-006 (DN06-017, RR07-003, RC07-001): Eusko Jaurlaritzako lehengo Herrizaingo Saileko Baliabide Orokorretako Zuzendaritzak Mutuak bidalitako gutun bat jaso zuen. Gutuna salatzaileari zuzenduta zetorren, baina Zuzendaritzat ireki eta fotokopiatu egin zuten, eta salatzailearen espedientean artxibatu. Ebatzi genuen DBLOren 6. artikulua urratu zutela: arau-hauste larria.
- PI13-007 (DN13-002): Eribeko Administrazio Batzarrak behar ez bezala tratatu zituen datu telefoniko batzuk. Ez zegoen frogarik. Ustezko errugabetasuna, Zehapena artxibatu egin genuen.



5. EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA

5.1. INFORMAZIOAREN ITURBURUA

Datu guzti hauek Fitxategien Erregistroaren datu-basearen azterketan dute jatorria. Erregistroan DBEBn deklaraturako inskripzio guztiak daude, Erregistroan sortu zenetik gaur arte. Erregistroa 2004an sortu zen. Denborari buruzko kalkulu guztietarako hartu den erreferentziako data izan da fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan “inskribatze, aldatze eta/edo ezabatze” data.



“Agentziaren zifrak” deritzon eranskinean daude jasota zehatz-mehatz Datuak Babesteko Erregistroan 2013an egindako deklarazio guztiak. Horretarako, hainbat taula jarri dira honako datuekin: Erregistroaren bilakaera historikoaren datuak, fitxategien mugimenduei buruzko datuak, erakunde deklaratzaleei buruzkoak eta abarrei buruzkoak, beste aldagai hauekin gurutzatuta: lurraldeari, administrazio mailari eta segurtasun mailari buruzko datuak.

Era berean, 2011z geroztik www.avpd.es web orrira egin dituzten bisiten bilakaera aurkezten dugu. Horretarako, “Google Analytics” tresnaren bidez bildutako trafikoko datuak erabili ditugu.

5.2. INSKRIPZIO ESKAERAK

2013an 1.307 mugimendu egon dira guztira Fitxategien Erregistroan (sortzeko, aldatzeko edo ezabatze inskripzioak). Mugimendu horien % 61 fitxategi berriak sortu direlako egin diren inskripzioak izan dira (801 fitxategi berri). Aldaketak, ordea, 350 izan dira (% 27) eta 156 ezabatze egon dira (% 14).


Horren arabera, saldo garbia da (inskrizioak ken ezabatzeak) 645 fitxategi berri gehitu direla Datuak Babesteko Erregistroan. Beraz, 2013a bukatzean 8.516 fitxategi zeuden inskribatuta.




Eskuineko grafikoan inskripzioen urtez urteko bilakaera ikus daiteke. 2004ra arte egindako inskripzioak Datuak Babesteko Espainiako Agentzian egindakoak dira. 2004az geroztik egindako inskripzioak, ordea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egin ditu.



"Urteko saldoa" epigrafeak DBEBren Erregistroari egindako ekarpenen saldo garbia islatzen du.




Mugimendu gehienak toki administrazioenak dira (udalak eta horien menpeko erakundeak). Guztira 755 mugimendu (% 57) egon dira, 2007an hasitako joera finkatuz. Beste behin ere, mugimendu gehienak toki administrazioenak dira (udalak eta horien menpeko erakundeak). Guztira 755 mugimendu (% 57) egon dira, 2007an hasitako joera finkatuz.



Hilez hile begiratzuz gero, argi ikusten da urtarrilean eta urrian deklarazio asko egin zituztela: 150 mugimendu baino gehiago egon ziren. Abuztuan eta abenduan, ordea, ia ez zen mugimendurik egin. Hilean 118 eskaera egon dira batz bestea (hilabete baliodunak 11 izan direlakoan).

5.3. ERAKUNDE DEKLARATZAILEAK

DBEBren Datuak Babesteko Erregistroan 1.227 fitxategi-arduradun zeuden jasota 2013aren bukaeran. Horien izaera juridikoari erreparatzen badiogu, gehienak (1.026) administrazio organoak dira (% 84); beste batzuk (165) erakunde autonomiadunak (% 13); eta, azkenik, gutxi batzuk (34) "bestelako izaera juridikoa" duten erakundeak dira (% 3).



Fitxategi bakoitzaren deklarazioan zehatz agertzen da jasota zein den fitxategiaren arduraduna (zuzendaritza orokorren edo administrazio bestelako egitura zehatz baten arabera), baina ustez egokiagoa da horiek multzokatzea, erakunde deklaratzailer nagusia kontuan hartuta, hau da, barruko egitura organikoa zehatza alde batera utzita. Beraz, erakundeak sailkatzeko, IFZ hartu da kontuan,



desberdina dutelako, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, kasu horretan sail bakoitza erakunde deklaratzailer nagusitza jo delako.

453 erakunde deklaratzailer nagusi daude. 2012ko datuekin alderatuta, 22 erakunde deklaratzailer nagusi gehiago daude. Erakunde deklaratzailer nagusi horietatik 11 Arabakoak dira eta 9 Bizkaikoak eta 2 Gipuzkoakoak.


2013a bukatzean Bizkaiko 2 udal zeuden Datuak Babesteko Erregistroan oraindik fitxategiak inskribatu gabe. Izugarri jaitsi da fitxategi bat bera ere inskribatu gabe zuten udalen kopurua, 2011n 18 zeudelako eta 2012an oraindik 10 udal zeudelako egoera horretan.

Bi udal horietako batek, Otxandioko udalak onartuta eta argitaratuta du fitxategiak arautzeko xedapena, eta bakarrik falta zaio DBEBren Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzea.

Beraz, esan dezakegu udal horrek erregularizatuta dituela bertako fitxategiak.

Beraz, 2013aren amaiera Gizaburuagako Udala zen udaleko fitxategiak erregularizatu gabe zeuzkan udal bakarra.


(Oharra: "Urteko Memoria argitaratzeko unean Gizaburuagako Udalak erregularizatuta zeuzkan fitxategiak DBEBn)





5.4. 2013AN INSKRIBATUTAKO FITXATEGI AKTIBOAK

Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan 8.516 fitxategi daude aktibo 2013an. Hurrengo grafikoan ikus daiteke bakoitzaren “antzinakotasuna” edo fitxategi horien banaketa denboran zehar, hau da, fitxategi bakoitza zein urtetan deklaratu zen ikus daiteke grafikoan. Grafikoaren arabera, aktibo dauden fitxategien % 90 2004az geroztik deklaratu dituztela esan daiteke.



5.5. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN BANAKETA, ERAKUNDEEN ARABERA

Inskribatuta dauden 8.516 fitxategietatik gehienak tokiko administrazioenak dira: guztira 6.464 fitxategi. 2013an zehar ere udalak izan dira, balio absolutuen arabera, mugimendu gehien ekarri dituztenak, 584 fitxategi gehiagoko saldo garbiarekin. Horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta, % 9,9 igo dela kopurua.

Gainontzeko administrazioetan, Eusko Jaurlaritzan izan ezik, fitxategi kopuruaren batez besteko igoera antzekoa da (% 6 eta % 8 bitartekoa).


5.6. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN SEGURTASUN MAILAK

Jakin nahi bada zein den zenbait organismok datu babesari eskaintzen dioten dedikazioa, kontuan hartu beharreko adierazle bat da inskribatutako zenbat fitxategik duten esleituta segurtasun maila.

2013aren bukaeran 330 fitxategi zeuden segurtasun maila deklaratu gabe. Era horretako fitxategien kopurua % 5,4 gutxitu da iazko kopuruarekin alderatuta (19 fitxategi gutxiago). 330 fitxategi horietatik 320 udaletako fitxategiak dira, eta gainontzeko 10ak foru aldundietakoak.



Hurrengo grafikoan ikus daiteke zein den inskribatuta dauden fitxategien segurtasun maila eta noiz inskribatu zen lehen aldiz fitxategia.



Ikusten da segurtasun mailarik ez duten fitxategiak 1994 eta 1995 urteetan sortu ziren fitxategien multzo batekoak direla, eta sortu zirenetik ez dute aldaketarik izan.

5.7. BULEGOAREN WWW.AVPD.ES. WEB ORRIAREN ERABILERAREN ESTATISTIKA


2013an DBEBren web orriaren erabilera neurtzeko modua aldatu da, eta aldaketa metodologiko bat egin da. 2005etik 2012ra arte DBEBren web orriaren inguruko jarduera erregistratzeko, www.euskadi.net erakunde atariko zerbitzariak bildutako datu trafikoa aztertzen zen.

2011ko urtariletik aurrera ari gara erabiltzen web metriketan gehien erabiltzen den mekanismo hau: “Google Analytics”. Bi urtetan (2011 eta 2012) neurketa metodo biak erabili genituen aldi berean, eta ikusi genuen oso antzeko emaitzak ematen zituztela denboran zehar gertatutako bilakaerari eta joerari dagokionez, baina Google Analytics-en emaitzak zorrotzagoak zirenez, 2013an metodo hori erabili genuen bakarrik.

Hori guzti hori kontuan hartuta, web orriaren jardueraren inguruan ondoko bi grafiko hauek aurkezten ditugu.




Lehenengo grafikoan ikusten da zenbat bisita izan zituen web orriak hilean, eta erabiltzaileek web gunera heltzeko zenbat banakako saio egin zituzten adierazten du. Azken hiru urteetako datuak daude.



Ikus daiteke batez beste 4.000 bisita dituela hilean DBEBren web orriak, eta kopurua jaitsi egiten dela udan. 2012ko urrian igoera nabarmen bat antzematen da, eta horren arrazoia da sare sozialei buruzko bideo batzuk argitaratu zirela.

Bigarren grafikoak erakusten du zenbat orri ikusi zituzten hilean, eta adierazten du web guneko orriak zenbat aldiz aurkeztu diren edo deskargatu diren. Bata bestearen gainean jarritako grafiko baten bidez islatu dugu informazio hori. Grafikoan oso argi ikus daiteke hilez hileko joera, eta hiru urteetan izandako bilakaerak alderatu daitezke horrela.





6. DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOAK

6.1. HEZKUNTZA KOMUNITATEAK PRIBATUTASUNAZ ETA IKT-EI BURUZ DUEN PERTZEPTZIOARI BURUZKO AZTERKETA KUALITATIBOA

Azterketa 2013ko laugarren hiruhilekoan egin zen, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan. Lana egiteko arrazoi bat da azken urteotan asko ugaltu direla Internetera konektatutako gailuak, eta bestea da gazteek sare sozialak eta Internet erabiltzeko moduak eragindako kezka ere asko hasi dela.

Azterlanaren xedea da aztertzea hezkuntza komunitateak zer dakien eta zein pertzepzio duen pribatutasunaz eta IKTei buruz; hori jakinda, hezkuntza komunitateak duen lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleen eta bigarren hezkuntzako 1. mailako ikasleen "hezitzaile-aholkulari" eginkizuna indartzeko neurriak inplementatu ahal izateko Datuak Babesteko Euskal Bulegoak.

Azterlana burutzeko, izaera kualitatiboko 2 ikerketa teknika erabili dira:

- Batetik, Elkarrizketa Ireki Sakona ikastetxeetako zuzendariekin eta Euskadiko Gurasoen Elkartearen Federazioarekin.
- Bestetik, talde dinamikak egin ziren ikastetxeetako irakasleekin eta heldutasun teknologikoaren arabera antolatu ziren ikastetxeak.

Azterketaren emaitzak www.avpd.es web orrian daude ikusgai, baina hemen zerrendatuta daude emaitza aipagarrienak:

Hezkuntza komunitateak azpimarratu du IKTek eragin handia dutela gizarteratze prozesuan, eta txateatzeko aplikazioak (WhatsApp) eta telefonoa dira komunikazio tresnarik garrantzitsuenak. Ikerketak ondorio ugari ditu, eta honakoak dira azpimarragarrienak:

- **Telefono mugikorra** da —Interneteko konexioarekin— 11 eta 13 urte bitarteko ikasleek gehien erabiltzen dute IKTa.
- **Gero eta arinago** hasten dira haurrak IKTak erabiltzen.
- **Telefono eramangarriari dagokionez**, esan daiteke lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailan hasten direla erabiltzen, ikasle askok **jaunartzea** egiten dutenean edo Gabonetan eskuratzen dutelako. Esan daiteke bigarren hezkuntzan Interneteko konexioa duten smartphoneak erabiltzea erabat zabalduta dagoela.
- **Sare sozialei dagokionez**, aipatu behar da sare sozialen arabera dela horiek erabiltzen hasteko adina. Sare sozialekiko lehengo harremana Tuenti bidez izaten da, eta gero hasten dira Twitter erabiltzen, eta azkenik, Facebook.



- Smartphonea taldearekin lotuta eta komunikatuta egotea ahalbideratzen dien tresna da, batez ere, testu-mezuen, argazkien eta bideoen bidez. Telefono deiek, ordea, gutxitzeko joera ageri dute.
- **Ez dira inondik inora jabetzen** Interneten egiten dutenak etorkizunean ekar ditzakeen ondorioez. Ikasleek badakite nola dabiltzan eta zertarako balio duten, **baina ez dira gai erabileraren ondorioak ikusteko, ez eta sare sozialetan izandako zenbait jarrerak ekar ditzaketen arriskuak ere.**
- Hezkuntza komunitatearen ustez, **intimitatea modatik pasatu da, eta extimitateari** utzi dio tokia. Egun gizartean indarra hartu duten balioek garrantzi handiagoa ematen diote gauzak erakusteari gordetzeari baino; eta etxean ez dute eredu egokirik, ez eta gazteek dituzten idoloen edo erreferenteen artean ere.
- Egoera arazotsuei dagokienez, aipagarrienak dira **Internet bidezko jazarpena** edo ziberjazarpena (irainak eta / edo mehatxuak WhatsAppetik edo sare sozialetatik inoren identitatea lapurtuta edo identitate faltsuak erabilita) eta irudien grabazioa eta zabalkundea.

Guraso elkarteek diote sare sozialei eta Interneteko segurtasunari buruzko prestakuntza eskaera handia dagoela gurasoen aldetik. Gurasoei dagokienez, esan behar da ardura handiagoa hartu behar dutela seme-alaben hezkuntzan, irakasleen lana eraginkorragoa izatea nahi bada. Horrek esan nahi du:

- IKTen balioa irakatsi behar dietela, eta arriskuak ere bai.
- IKTak erabiltzeko jarraibideak ezarri behar dituztela, eta horien jarraipena egin.
- Sentsibilizazio eta prebentzioaren inguruan ardaztutako diskurtsoak beste eragile batzuen bidez indartu behar dela uste dute, LHko 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleengan **eragin indar handiagoa** duten eragileekin.

Bat datoz eta ia gauza bera eskatzen dute zuzendariek, irakasleek eta guraso elkarteek: **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin** lan koordinatua egitea, ikastetxeei jarraibide argiak eta homogeenak eman ahal izateko, IKTekin, pribatutasunarekin eta datu babesarekin lotutako gaiei modu planifikatuan eta helburu garbiekin heltzeko.

Azterlanaren ondorioz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak antzeman du hezitzaileek eta familiekin pribatutasunari eta IKTen erabilerari buruzko aholkularitza premia handia dutela.



7. PRIVATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA

7.1. DATU BABESAREN EUROPAKO EGUNA. 2013KO URTARRILAREN 28A

Europako Kontseiluak, Europako Batzordeak eta datuak babesteko agintaritzek urtero ospatzen dute urtarrilaren 28an Datu Babesaren Europako Eguna, egun horretan izenpetu zelako "Datu pertsonalen tratamendu automatizatuaren aurrean pertsonak babesteari buruzko Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmena".

DBEBk KZguneetako zentro garrantzitsuenetan aurkeztu zuen [Arazoak dituzu pribatutasunarekin?](#) edukia. Baliabide horrek datu pertsonalak kontrolatzen irakatsi nahi die gazteei, batez ere Interneten. Bertan azaltzen da nola kontrolatu eta zer egin, nahi ez den informaziorik (spama) ez jasotzeko, identitate lapurretarik ez egoteko, eta sare sozialetan informazio pertsonala nola erabili. Edukiak honako egitura du:

- Sare sozialak
- Zure datu pertsonalak
- Identitate lapurretak
- Nahi ez diren jakinarazpenak

Material horiek guztiak urtarrilaren 28an aurkeztu ziren KZgune garrantzitsuenetan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren aurkezpen bideo batekin.

http://www.avpd.euskadi.net/s04-5273/es/contenidos/noticia/2013/es_130128/index.shtml



7.2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAN KOMUNIKABIDEETAN

7.2.1 Prentsa idatzia

Data	Izenburua	Komunikabidea
2013	Diseinutik egindako segurtasuna (Privacy by design)	<i>Aurrera!</i> aldizkaria
2013/01/02	<u>Iñaki Pariente de Prada Sare sozialak: tresna eta erronka</u>	Diario Vasco
2013/01/25	<u>"Doakoak badira ere, sareek prezioa dute"</u>	El País
2013/01/26	<u>Ohartarazi dute administrazioen arteko datu lagatzeak ez direla beti legezkoa izaten</u>	Deia
2013/01/26	<u>Ohartarazi dute administrazioen arteko datu lagatzeak ez direla legezkoa izaten</u>	ABC
2013/01/26	<u>Iñaki Pariente: «Laneko elkarrizketak egiteko, jendeak bi profil izan ohi ditu: benetakoa eta fikziozkoa»</u>	El Correo
2013/01/26	<u>Ohartarazi dute administrazioen arteko datu lagatzeak ez direla beti legezkoa izaten</u>	Deia
2013/01/27	<u>«Nire datuak neureak dira»</u>	Diario Vasco
2013/01/27	<u>Datuak Babesteko Agentziak administrazioek egiten dituzten datu lagatzei buruz ohartarazi du</u>	Gara
2013-01-28	<u>Datu babesa bidegurutzean</u>	Noticias de Gipuzkoa
2013/01/30	<u>Datuak Babesteko Agentziak akatsak antzeman ditu Lanbideri egindako datu lagatze batzuetan</u>	El País
2013/02/12	<u>Datuak Babesteko Euskal Bulegoan gero eta kontsulta gehiago dituzte, sare sozialen gorakadaren ondorioz</u>	Astekari Digitala
2013/04/10	<u>Datuak Babesteko Agentziak eskatu du atez atekoak auzotarren pribatutasuna bermatu dezala</u>	Diario Vasco
2013/05/09	<u>PSE arduraduta dago Dbus-eko kameraren erabileraren legezkotasunaz</u>	Diario Vasco



Data	Izenburua	Komunikabidea
2013/05/10	Dbus-ek ez ditu kamerak erabiliko Datuak Babesteko Agentziak agertu dituen zalantzak ikusita	Noticias de Gipuzkoa
2013/05/16	Iñaki Pariente: "Arazoa da ez jakitea zein eskubide uzten zaizkion teknologiarri"	Diario Vasco
2013/06/25	Ahazteko eskubiderik ez, ezabatzeko eskubiderik ere ez	El País
2013/06/25	Justiziak arrazoia eman dio Googleri ahazteko eskubideari dagokionez	El País
2013/06/26	Lan ikuskaritzak 200 salaketa baino gehiago zenbatu zituen jazarpenagatik 2012an	Finanzas.com
2013/06/26	Lan ikuskaritzak 200 salaketa baino gehiago zenbatu zituen jazarpenagatik 2012an (Ahazteko eskubideari buruzko EHuko Udako Ikastaroen eta Iñaki Pariente zuzendariaren aipamena)	Finanzas.com
2013/06/27	Ahazteko eskubidea iraungita heldu da Internetera	El Mundo
2013/06/27	Sarearen memoria: "Egitasuna, proportzionaltasuna eta interes publikoa"; Interneteko berri batek ez badu baldintza horietako bat betetzen, ezabatu egin dezakete.	Noticias de Gipuzkoa
2013/06/27	Internet: etxeko kontuak erakuslehoan	Berria
2013/06/27	"Europa osorako balio duen pribatutasunari buruzko araudi bat behar dugu lehenbailehen"	eldiarionorte.es
2013/07/14	Hiperzaintzapean	Berria
2013/07/21	Elkarrizketa Iñaki Pariente de Pradari: Datu babesasko eskasagoa izango zen Estatuko agentziarekin bakarrik	Expansión
2013/08/07	Datu babesari buruzko hezkuntza baliabideak	Datuak Babesteko Iberoamerikako Behatokia
2013/09/23	Internetek ez du ahazten	Noticias de Gipuzkoa



Data	Izenburua	Komunikabidea
2013/10/21	Igeldori buruzko kontsultak ez du bermerik PSEren eta PNVren iritziz	Diario Vasco
2013/12/09	Segurtasun Sailak ezabatu egin du agenteen betebeharra 900 lineara deitzeko baja hartu ahal izateko	Deia
2013/12/09	Segurtasun Sailak ezabatu egin du agenteen betebeharra 900 lineara deitzeko baja hartu ahal izateko	Noticias de Gipuzkoa
2013/12/13	Datuak Babesteko Bulegoak uste du Dbus-eko kamerek arau-hauste larri bat egin zutela Donostibus-ek gogorarazi du sistema bera dagoela jarrita milaka autobus eta trenetan	Diario Vasco

7.2.2. Irratia eta telebista

Data	Izenburua	Komunikabidea
2013	Elkarrizketa Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari, Iñaki Parienteri, langile baten posta elektronikoa ikusi eta gero, enpresak langilea kaleratzea legezkoa dela dioen Konstituzio Auzitegiaren epaiari buruz	ETB
2013	Grabazioa DBEBren zuzendariari, herritarrek datu babesari buruz duten pertzeptzioaren gaineko azterketari buruz	
2013/01/25	Datu Babesaren Nazioarteko Eguna Solasaldia Iñaki Pariente de Pradarekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarekin.	Radio Euskadi (Grafitti)
2013/01/27	Elkarrizketa Iñaki Parienteri datu babesari buruz, Datu Babesaren Egunerako	Radio Euskadi
2013/01/28	Egun on Euskadi: elkarrizketa Iñaki Parienteri, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari	EITB (Egun on Euskadi)
2013/01/28	Solasaldia Ser Vitoria irratian Iñaki Pariente de Pradarekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarekin.	Cadena Ser Vitoria
2013/01/28	Datu Babesaren Egunari buruzko elkarrizketa	Onda Cero Gipuzkoa



Data	Izenburua	Komunikabidea
2013/01/28	DBEBren zuzendariaren, Iñaki Pariente de Pradaren aurkezpena (DBEB), Datu Babesaren Nazioarteko Eguna dela-eta	Youtube
2013/01/28	Iñaki Pariente de Pradaren agurra (DBEB), Datu Babesaren Nazioarteko Eguna dela-eta	Youtube
2013/01/28	Hitzarmena izenpetzea CTAINLekin (Nuevo León, Mexiko)	Youtube
2013/01/28	Solasaldia Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarekin	Iurismática (Elkarrietzeta: Onda Cero)
2013/01/29	Iñaki Pariente de Prada, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria: "teknologia berrien aurrerapenak, erabilerak dakarren arriskua hirukoizten du"	Onda Cero
2013/01/30	Iñaki Pariente de Prada, datuak babesteko Euskal Bulegoko zuzendaria	EITB
2013/03/13	Elkarrietzeta Iñaki Parienteri	Cadena Ser
2013/04/11	Datuak Babesteko Agentziak eskatu du atez atekoak auzotarren pribatutasuna bermatu dezala [bideoa]	Diario Vasco
2013/04/13	Elkarrietzeta DBEBren zuzendariari, Iñaki Parienteri, Atez ateko zabor bilketaren gaineko Legazpiko kontsulta bati buruz	COPE
2013/04/23	Atez ateko hondakinen (zaborrak) bilketari buruzko elkarrietzeta	Onda Cero
2013/04/29	Elkarrietzeta Iñaki Parienteri COPE Gipuzkoan	COPE
2013/06	Elkarrietzeta Iñaki Parienteri, udako ikastaroak direla eta, ahazteko eskubideari buruz Googlen	Radio Euskadi
2013/06/25	Elkarrietzeta Iñaki Pariente de Pradarekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari. Solasaldia: Ahazteko eskubidea Interneten	Onda Cero
2013/06/25	Elkarrietzeta Iñaki Parienteri, udako ikastaroak direla eta, ahazteko eskubideari buruz Googlen	Radio Euskadi
2013/06/26	Elkarrietzeta 'Onda Cero Gipuzkoan' udako ikastaroari buruz	Onda Cero
2013/06/26	Elkarrietzeta Iñaki Parienteri: Google eta ahazteko eskubidea, udako ikastaroak direla-eta	Onda Vasca



Data	Izenburua	Komunikabidea
2013/07/21	Elkarrizketa Iñaki Parienteri	Radio Euskadi
2013/12/08	Elkarrizketa, Iñaki Parienteri: "Inimitatea urratzea: ... gutako zenbatek jartzen dugu arriskuan geure burua Interneten?"	Radio Euskadi



8. EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

8.1. DATU BABESARI BURUZKO NAZIOARTEKO ZENBAIT FOROTAN PARTE HARTZEA

- *Datuak Babesteko XI Iberoamerikako Topaketak. Antolatzailea: Datuak Babesteko Iberoamerikako Sarea. Cartagena de Indias (Kolonbia) (urriaren 17a)*

DBEBren zuzendariak "CLOU COMPUTING" izeneko saioan hartu zuen parte: hodeian egiten diren datu pertsonalen transferentzien bermeak, lege ezargarria, nazioarteko datu transferentziak eta hirugarren herrialdeetako agintaritzen informazio eskaerak. Saioan datuak babesteko beste agintaritzak batzuetako ordezkariak ere hartu zuten parte.

8.2. HITZALDIETAN, MINTEGIETAN ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTZEA

- *EuskalSecuriTIConference* (Informazioaren segurtasunari buruzko Euskal Biltzarra). 2013o martxoaren 5a

Datu pertsonalen babesaren, informazioaren pribatutasunaren eta segurtasunaren arloan alderdi juridikoa nahiz teknologia interesatzen zaien profesionalak zuzendutako biltzarra zen. Agentziaren zuzendariak eta Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak parte hartze aktiboa izan zuten ekitaldian, hasierako ekitaldian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalari buruzkoan ere parte hartuz.

- *Hitzaldia Donostiako Nazaret ikastetxeko gurasoei. Donostia-San Sebastian (martxoaren 7a)*
- *Segurtasuneko eta Osasuneko Datuen Babesari buruzko Foroa*, Iruñea (martxoaren 20a eta 21a)

Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarteak (SEIS) urtero-urtero antolatzen du foro hau, eta bertan elkartzen dira osasun arloko profesionalak, datuak babesteko agintaritzak eta esparru teknologikokoak. Aurtengo edizioak honako izenburua izan du: "Osasun datuen babesaren etorkizuna: eskubide berriak, betebeharrak". Eta foroaren xede nagusia izan da osasunaren esparruari azaltzea Babesteko Europako Erregelamenduaren Proposamenaren alderdi garrantzitsuenak, batez ere osasunaren esparruan eragin handiena izango dutenak.

Zuzendaria, Lege Aholkularitza eta Ikuskaritzaren arduraduna eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak honako saioetan hartu zuten parte: Zenbait kasu praktiko: datuak babesteko agintaritzen esperientzia eta Osasun datuak babesteko estrategiak eta lehentasunak. Arautzaileen ikuspegia.

- *"Datu pertsonalak babestea eta jabetza horizontala". Gipuzkoako eta Arabako Finken Administrazioailean Elkargo Ofiziala (apirilaren 26a)*



- **Zuzendariaren hitzaldia. Diario Vascoren Aula de Cultura aretoa, Donostia-San Sebastián (maiatzaren 16a)**
- **e-administrazioari buruzko Jardunaldiak. Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsua (maiatzaren 30a)**

DBEBk parte hartu zuen Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak Bilboko egoitzan antolatutako jardunaldiotan. Lege Aholkularitzako letratu batek administrazio elektronikoen esparruko datu lagatzeei buruzko hitzaldi bat eman zuen, eta Agentziaren egungo egoeraren berri emateaz gain, alderdi korapilatsuenak azaldu zituen.

- **Hitzaldia: "Cloud Computing-aren erronkak: hodeiko zerbitzuak aukeratzeko estrategia". Izarra Zentro Teknologikoa, Ermua (ekainaren 20a)**
- **Datuak Babesteko Europako Erregelamenduen proiektuaren zerbait alderdi. Deloitte aholkularitza. Bilbao (ekainaren 27a)**
- **I. Pribatua Jardunaldia: "Sinadura biometrikoa", Bake Eder zentroa. Getxo (irailaren 26a)**

Pribatua-Pribatutasun eta Informazio Segurtasuneko Euskal Elkarteak BiskayTIK Fundazioarekin batera antolatu zuen sinadura biometrikoari buruzko jardunaldi hau. DBEBren zuzendariak "Sinadura biometrikoa" izeneko hitzaldian era horretako sinaduraren ezarpenak ekar ditzakeen arazoak eta egon daitezkeen konponbideak azaldu zituen.

- **Bilera zientifikoa: "Askatasunaren, Segurtasunaren eta Justiziaren Esparrua; Schengen eta datuen babesa", Donostia-San Sebastián (urriaren 3a)**

Euskal Herriko Unibertsitateak antolatu zuen, eta DBEBren zuzendariak honako mahai-inguruan hartu zuen parte: **"Askatasunaren, Segurtasunaren eta Justiziaren Esparruan datuak babesteko eskubidearen inguruko egungo hainbat gai eta ikuspegi"**.

- **Hitzaldia. Monjas de la Caridad ikastetxea. Vitoria-Gasteiz (azaroaren 5a)**
- **Madrileko Erkidegoko Foro Irekia. Madril (azaroaren 15a)**

DBEBren zuzendariak hitzaldi bat eman zuen enpresa pribatuaren, administrazio publikoaren eta datu pertsonalen babesaren arteko harremanari buruz. Foro hau Madrileko Erkidegoko Gobernuaren Lehendakaritza, Justizia eta Bozeralamaile Sailak antolatutako jardueren baitan dago.



- **Datu Babesari buruzko II. Jardunaldia.** *Pribatua elkarteak antolatuta, Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsuaren egoitza (azaroaren 27a)*

Hizlariak aztertu zuten letratuek bezeroekin eta hirugarrenekin (prokuradoreak, gestoriak, perituak eta abar) izan ohi dituzten harremanak eta nola izaten dituzten (posta elektronikoa, Whatsapp, papera).

- ***Tokiko Administrazioa eta Datuen Babesari buruzko I Jardunaldi Irekia. Getxo (azaroaren 28a)***

BiskayTIK Fundazioarekin eta Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuarekin batera antolatutako jardunaldi honetan Datuak Babesteko Euskal Bulegoak tokiko esparruari buruz duen doktrina azaldu duen. Jardunaldiaren helburuetako bat da esparruko langileentzako eta toki administrazioaren langileentzako elkargune bat sortzea, aukera izan dezaten planteatzeko eta galdetzeko datuak babesteko araudia toki administrazioari jardueretan ezartzean izaten dituzten zalantzak.

- ***Datu babesari buruzko hitzaldia. Gipuzkoako Lan Harremanetako Gradudunen Elkarte Ofiziala (abenduaren 9a)***
- ***Segurtasunari eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko V. Jardunaldia. UPV-EHUko Ingeniari Eskola. Vitoria-Gasteiz (abenduaren 11)***

DBEBren Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak hartu zuen parte jardunaldian eta hitzaldi hau eman zuen: *"Ahazteko eskubidea (tekniko) Interneten"*

- ***"Oinarritzko eskubideen nazioarteko babesa. Ikuspegi publikoak eta pribatuak" II. Nazioarteko Biltzarra. UPV-EHUko Zuzenbideko Fakultatea. Donostia-San Sebastián (abenduaren 12a eta 13a)***

Iñaki Pariente, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak, *"Datu babesa egun: pribatutasuna eta teknologia"* izenburua duen hitzaldia eman zuen.

8.3. PRESTAKUNTZA JARDUERAK: IKASTAROK

- Bideo zaintzari buruzko ikastaroa (Lege Aholkularitza). Laboral Kutxa. Vitoria-Gasteiz (urtarrilaren 25a).
- Datu babesari buruzko ikastaroa. Gipuzkoako Foru Aldundia (urtarrilaren 28a eta 29a).
- Ikastaroa, datu babesari buruz funtzio publikoan, langileak hautatzeko prozedurak eta datu pertsonalak babestea. Adolfo Posada Administrazio Publikoko Institutua. Oviedo (apirilaren 11).
- Ikastaroa Gipuzkoako Foru Aldundirako: *"Nola babestu informazioa lantokian"*. Miramongo Parke Tenologikoa. Donostia-San Sebastián (apirilaren 23a).



- Ikastaroa: "Nola babestu informazioa lanean: segurtasun neurriak". Gipuzkoako Foru Aldundia (apirilaren 15a).
- Irakasleentzako prestakuntza saioa: *"Ingurune digitaleko elkarreraginetik eratorritako arriskuak pribatutasunerako"*. Marianisten ikastetxea. Donostia-San Sebastián. (maiatzaren 27a).
- UPV/EHUren Udako Ikastaroak: [*Ahazteko eskubidea Interneten: utopia ala errealitatea*](#). Miramar Jauregia. Donostia-San Sebastián (ekainaren 26a).

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak topaketan parte hartu zuen, datu babesaren arloko hainbat aditurekin batera, Internetetik norberaren datu pertsonalak ezabatzeko eskubidearen errealitatea pertsonen hurbiltzeko asmoarekin.



9. BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA

9.1. DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAREN KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAN PARTE HARTZEA

DBEBren zuzendaria, AEPDren Kontseilu Aholku-emailearen kidea da, eta 2013ko uztailaren 16ko eta abenduaren 17ko bileretan hartu zuen parte.

9.2. LANKIDETZA BESTE AGENTZIA BATZUEKIN

9.2.1. HAINBAT EKITALDITAN PARTE HARTZEA

Kataluniako Agintaritzak deitutako "Diseinutik abiatutako pribatutasuna" sari banaketa. Kataluniako Parlamentua (uztailaren 5a).

9.2.2. LAN TALDEETAN PARTE HARTZEA

Lege aholkularitzak koordinatzeko taldea

Bilera bat, bideokonferentzia bidez, 2013ko azaroaren 21ean. Hona gai-zerrenda:

- Bereziki babestutako datuak berrerabiltzea.
- Historia klinikoak atzitzea.
- Ibilgailu partikularretan jarritako kamerak (ibilgailuak, txirrindulariak. motozikletak eta abar).
- Interes legitimoan oinarritutako gaikuntza nola ezartzen duten agentziek. Hainbat kasu praktiko.

Ikuskaritza taldea

Bilera bat, bideokonferentzia bidez, 2013ko azaroaren 25ean. Hona gai-zerrenda:

- AEPDk bereganatzea APDCMren eskumenak. Ondorioak.
- Sindikatuen iragarki-ohol elektronikoaren moderatzailearen erantzukizuna, informazio jakin bat zabaltzen duenean.
- Salatzailleak aurkeztutako informazioa, salaketa bateko arau-haustearen froga denean, eta, zantzuen arabera, salatzailleak modu ez legezkoan lortu duenean. Hainbat kasu. Froga baloratzeko horrek duen eragina, eta ekintza posibleak.
- GPSa instalatzea Segurtasun eta Indar Kidegoen ibilgailuetan.
- Zerga Agentziak edo DBEBren ezarpen eremutik kanpo dagoen beste erakunde batek EAEko aldizkari ofizialean argitaratutako datuak ezerezteko eskubidea.
- Bideo zaintzako ikuskapenetan aurreabisua ea bidezkoa den, kontuan izanda gertakariak alda daitezkeela eta/edo frogak suntsitu.
